



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HITZARI JOLASA, BIZITZARI ARNASA:

**Literatura tailer proposamena
Lehen Hezkuntzako azken ziklorako**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Arrizubieta Barredo, Aroa

ZUZENDARIA: Zelaieta Anta, Edu

2022/2023

LABURPENA

[EUS] Idazketak eta ahozkotasunak eragin zuzena dute ikasleen hainbat gaitasunetan, eta alde horretatik hutsune nabarmenak identifika daitezke Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Hori dela eta, Lehen Hezkuntzako azken ziklorako literatur tailer proposamen didaktikoa azaltzen da, honen ebaluazioarekin eta ondorioztatutako gako garrantzitsuenekin batera. Era berean, azken aldiko egileek gomendatzen dutenari jarraituz, proposamena egiteko literatur tailerrekin lotura estua duten hainbat alor aztertu ditugu marko teorikoan: Euskal Haur eta Gazte Literatura historian zehar eta gaur egun; literaturak hezkuntzan duen eragina EAEko curriculum berriaren zirriborroa aztertuz; poesia, ahozko literatura eta jolasaren arteko harremana; eta literatura tailerren balioaren azalpena.

Hitz gakoak: Euskal Haur eta Gazte Literatura, Lehen Hezkuntza, literatura tailerrak, poesia, jolasa eta sormena.

RESUMEN

[ES] La escritura y la oralidad influyen directamente en las diferentes competencias del alumnado, y se pueden identificar lagunas significativas entre el alumnado de Primaria. Por ello, se explica la propuesta didáctica de talleres literarios para el último ciclo de Primaria, junto con su evaluación y las claves más importantes deducidas. Asimismo, siguiendo la recomendación de los autores recientes, en el marco teórico se han analizado diversos ámbitos estrechamente relacionados con los talleres literarios para la elaboración de la propuesta: la Literatura Infantil y Juvenil Vasca a lo largo de la historia y en la actualidad; la influencia de la literatura en la educación mediante el análisis del borrador del nuevo currículo de la CAPV; la relación entre la poesía, la literatura oral y el juego; y la exposición del valor de los talleres literarios.

Palabras clave: Literatura Infantil y Juvenil Vasca, Educación Primaria, poesía, talleres literarios, juego y creatividad.

ABSTRACT

[EN] Writing and orality directly influence the different competences of students, and significant gaps can be identified among primary school students. Therefore, the didactic proposal of literary workshops for the last cycle of primary education is explained, along with its evaluation and the most important key findings. Likewise, following the recommendation of recent authors, various areas closely related to literary workshops have been analyzed in the theoretical framework for the development of the proposal: Basque Children and Youth Literature throughout history and in the present; the influence of literature in education through the analysis of the draft of the new curriculum of the Basque Autonomous Community; the relationship between poetry, oral literature and the game; and the presentation of the value of literary workshops.

Keywords: Children's and Youth Basque Literature, Primary Education, poetry, literary workshops, game and creativity.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. JUSTIFIKAZIOA.....	2
3. MARKO TEORIKOA.....	3
3.1 Euskal Haur eta Gazte literatura.....	3
3.1.1 Euskal Haur eta Gazte literatura XXI. mendera arte.....	4
3.1.2 Euskal Haur eta Gazte literatura gaur egun.....	6
3.2 Literatura eta hezkuntza.....	6
3.2.1 Poesia, ahozko literatura eta jolasa.....	7
3.2.2 Curriculumaren azterketa.....	9
3.3 Literatura tailerrak.....	10
4. HELBURUAK.....	12
5. HITZARI JOLASA, BIZITZARI ARNASA.....	13
5.1 Sarrera.....	13
5.2 Metodologia.....	14
5.3 Konpetentzia orokorrak, espezifikoak eta oinarrizko jakintzak.....	15
5.4 Jardueren programazioa.....	17
5.4.1 Idazketarekin esperimentatzen.....	17
5.4.2 Idazketa kolektiboa.....	18
5.4.3 Definizio eta inprobisazioarekin jolastuz.....	20
5.4.4 Poesia hieroglifikatzen.....	22
5.4.5 Poesia, gorputz adierazpena eta ahozkotasuna.....	23
5.4.6 Ahozkotasunarekin esperimentatzen.....	25
5.4.7 Gorputz adierazpenarekin esperimentatzen.....	26
5.4.8 Gure lanen errezitaldia.....	28
5.5 Ebaluazioa.....	30
6. PROPOSAMENAREN BALORAZIOA ETA KONTUAN HARTZEKO GAKOAK.....	31
7. GRALAREN BALORAZIO PERTSONALA.....	32
8. ERREFERENTZIAK.....	34

ERANSKINAK

1. SARRERA

Gratu Amaierako Lan (GrAL) hau Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Lehen Hezkuntzako graduaren testuinguruan sortua da. *Hitzari jolasa, bizitzari arnasa* du izenburu, hitzarekin jolastea delako helburu: hitzarekin jolasten ikasiz gero bizitzari bizia, arnasa, emango diogula; finean, errealitateari zentzua. Hori dela eta, Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleei bideraturiko literatur tailerrak proposatuko dira lan honetan, zortzi saioz osaturiko esku-hartzean, ikasleek idazketa eta ahozkotasanarekin esperimentatzeko aukera eduki dezaten.

Irakurzaletasuna eta Biblioteka minorreko *Gaur Egungo Haur eta Gazte Literatura, Literatura Tailerrak eta Haur Antzerkia eta Dramatizazioa* ikasgaiek bultzaturiko lana da honakoa. Izan ere, laugarren mailako espezializazio horretan ikasitako edukiak eta eskuratuko kompetentziak baliatu ditugu, modu kontziente batean, azken urteko practicumean nahiz GrAL honetan. Horrez gain, beste hainbat iturritako informazioa aztertu da, eta horretan guztian oinarriturik osatu da literatura tailer proposamen didaktiko hau.

Egiturari erreparatuta, nagusiki bi ataletan dago banatua lan hau: marko teorikoa batetik eta LHko ikasleen jolasa eta sormena sustatu nahi dituen proposamen didaktikoa bestetik. Hasierako atalean, Euskal Haur eta Gazte Literaturak historian zehar izan duen eta gaur egun duen presentziari erreparatuko zaio, eta literatura eta hezkuntzak duten harreman estuari ere begiratuko diogu. Azken honetan, poesia, ahozko literatura eta jolasak duten harremana aztertuko da, curriculum berriaren inguruan hausnartu eta proposamenak beteko lituzkeen helburuak aztertu eta literatura tailerren indarguneak aurkeztuko dira.

Bigarren atalean proposamen didaktikoa azalduko da, honi esleitzen zaizkion helburu eta kompetentziekin batera. Aplikatu beharreko metodologia azaltzen da lehenik eta jardueren saioz saioko proposamena ondoren. Azkenik, hau praktikan jarritakoan jasotako ondorioetatik ateratako gako garrantzitsuenak adierazten dira. Izan ere, geroago azalduko dugun moduan, Practicum IIIrako burututako egonaldiarekin lotutako proposamen didaktikoa da honakoa.

2. JUSTIFIKAZIOA

Egun, inor gutxik ukatzen du irakurketak eta idazketak duten garrantzia, hitzetik ekintzara igarotzean, ordea, ez dago hain ziur nahikoa ote den egiten duguna. Izan ere, sarri, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat zama bat da idazketa, eskolarekin guztiz loturiko betebeharrak. Alde horretatik, ez dirudi irakurketaz eta idazketaz gozatzen ikasten dutenik, ez dute tresna erabilgarri gisara ikusten, eta adinean zenbat eta gorago egin, orduan eta arbuio handiagoa dute irakurketa eta idazketarekiko (Clark eta Dugale, 2009, Izquierdo et al.ek aipatua, 2019). Honen aurrean, irakasleon esku dago horren aurrean nola jokatu erabakitzea, kalte nabarmenak ekar baititzake motibazio falta horrek. Gainera, ekintza-segida agerikoa bilakatzen da: ez dutenez irakurketa eta idazketaz gozatzen, ez dute ez irakurtzen ezta idazten ere; eta ondorioz, daukaten maila eskasa da (kausa-ondorio ordena horretan zein beste edozeinetan).

Idazketaz gozatzen ikasteko eta honen beharraz jabetzeko, tresna egokia da idazketa tailer sortzaileena. Izan ere, Perriconik (1994) azaltzen duenez, tailer hauek askatasuna aldarrikatzeko leku bat dira, non hitzetatik disfrutatzen ikasten den. Gainera, idazketarekin dibertitu daitezkeela ikusteko aukera izateaz gain, beste hainbat onura ere ekar ditzakete: gaitasun komunikatiboak lantzea, idazketarako modu ezberdinak ezagutzea, irudimena garatzea eta edozein egoerari aurre egiteko idazketa baliabideak ikusteko aukera edukitzea. Horretarako, poesia erabiliko dut bitartekari nagusi gisara. Izan ere, Lehen Hezkuntzako azken urteetan batez ere, poesiarekiko arbuioa nabarmena da eta aurrejuzguak ezeztatze espazio ere izango dira tailerrak. Gainera, hizkuntza poetikoak, jolasak sorrarazten duen emozioarekin batera, asoziazio-sistema konplexu bat aktibatzen du irudimenean nahi gabe, hizkuntzaren erabilera ohikoan lortzen zaila dena (Janer Manila, 1986, Marta Milianek aipatua, 1995).

Arlo pertsonalera joko banu, neure motibazioaren berri emateko, onartu beharra daukat betidanik gustatu izan zaidala idaztea, eta esango nuke idazketarekiko bultzada horretan izugarri motibatu ninduela Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailan Xabier Olaso tutore izateak. Izan ere, bere idazketarekiko zaletasuna transmititzen zigula esango nuke, eta horrek neure buruarekiko eskakizuna ere estutzen zuen, nabarmenki hobetzeraren eramaten ninduen.

Hala ere, urteek aurrera egin ahala, frustrazio handia sortu izan dit zaletasun hori ezin konpartitzeak, ingurukoek idazketarekiko zuten mespretxuagatik. Egia esan, nik ere idazketa eskolako tresna soil gisara ikusi izan dut urteetan zehar –honekin ere gozatu arren–, ez ditut

umetatik idazketarako modu, jolas eta baliabide ezberdinak ezagutu. Zorionez, garaiz izan nintzen zortedun, eta 2017ko *Urruzuno* lehiaketako egonaldian Yolanda Arrieta ezagutzeko aukera eta harekin idazketa tailerrak burutzeko aukera izan nuen. Bestela esanda, neronek idatzi nezakeen mundu baterako atea zabaltzeko zizkidan. Hortik aurrera, idazteko zeuden hamaika moduen berri izanik, eskolan beti eskema berdinak jarraitzea frustragarria iruditzen zitzaidan.

Hori horrela izanda ere, ez diot inoiz idazteari utzi izan, eta irabazitako literatur sariak ere idazten jarraitzeko motibazioa sortu didatela esango nuke. Besteak beste, aurretik aipatutako *Urruzuno Lehiaketa* (2017 eta 2018an) zein *Hizki laburren lehiaketa* (2020). Gainera, “Irakurzaletasuna eta Liburutegiak” minorrean “Literatura Tailerrak” ikasgaiak gozatzeko aukera eduki dut, eta orduan berretsi dut Lehen Hezkuntzara ere horrelako praktikak eramatearen beharra.

Gainera, txikitatik izan dut bertsolaritzarekiko zaletasun handia, eta bertsolari gisara eta bertso eskolako irakasle gisara jardun dut –eta dihardut– urteetan zehar. Esperientzia horren argitan, inprobisazioak ikasleen komunikazio gaitasunean dituen hobekuntza nabarmenak ikusteko aukera eduki dut. Beraz, ahozko literaturarekin eta ahozko literatura den bertsolaritzarekin esperimentatzeko aukera ere egongo da proposamen honetan.

3. MARKO TEORIKOA

3.1 Euskal Haur eta Gazte literatura

Haur eta Gazte Literaturaz (HGL) hitz egiteko, garrantzitsua da berau definitzea, eztabaida asko egon izan baitira termino honen bueltan, eta kontuan hartuz nahiko termino berria dela historian, oraindik erantzun guztiz konpartiturik ez dagoela esan genezake. Izan ere, askotan esan izan da literatura ona baldin bada ez duela adinik, baina baita gazteen eta helduen literaturak zerikusirik ez duela ere. Azken batean, Etxanizek (d.g) seinalatzen duen bezala, hartzailea da literatura mota definitzen duena. Beraz, HGL haurrentzat eta gazteentzat idatzitako literatura dela uler dezakegu.

Era berean, Lopez Gasenik (d.g) gehitzen du kontatzeko modua edo kodea dela aldatzen dena, gai bera ezberdin kontatzen zaiela haurrei edo gazteei. Hortaz, horrela ulertuko dugu HGL lan honetan zehar. Edonola ere, kontatzeko moduak, haurrentzako izan arren, ez du zertan kontakizunaren kalitatea kaltetu, ez du zertan estetika alboratu.

Horrek, hasieratik, argi izan beharreko beste ideia bat dakar: helburuaren eta kalitatearen arteko dikotomia. Izan ere, sarri morala estetikaren aurretik jarri izan da, HGLn azpimarragarria baita ia beti egon izan dela helburu morala. Helburua haurra heztearen ipuinetan emandako irakaspen ezberdinen bitartez, eta arestian esan bezala, hau helburu bakar bihurtzeak kalitatea jaistea eragin dezake.

Adibide bat ematera ausartu beharko banintz *Aitorrek bi ama ditu* (2004) eta *Tango iritsita, hiru dira* (2016) ipuinak konparatuko nituzke. Bi kontakizunen helburua guraso homosexualen normalizazioa edo horren inguruko hausnarketa sustatzea da, baina oso modu ezberdinetan. Lehenengoaren helburua guztiz morala da, eta literaturaren ikuspegi estetikitik erreparatuko bagenu, alde handia aterako lioke bigarren aipaturikoak. Izan ere, guraso homosexualen normalizazioa erakusten du benetako gertakarietan oinarritutako bi pinguinoren istorioaren bitartez. Hortaz, interesgarria da lan literarioen garrantzia azpimarratzea. Lewis Carroll (*Alice in Wonderland* obraren eta beste hainbaten idazlea) eta Julio Verne (*Vingt mille lieues sous les mers* lanaren idazlea, besteak beste) bezalako idazleei esker hasi zen baztertzen helburu soil hori haur eta gazteentzako literaturan, oraindik ere askotan horrelako kasuak aurki baditzaiegu ere (Etxaniz, 1997).

Laburbilduz, lan honetan zehar HGL hitz egiten dugunean, hartzaile nagusiak haurrak eta gazteak izan diren eta diren lanei egingo diegu erreferentzia, haurrentzat ulergarri den literaturari, eta lan literarioez ari garenean, estetikaren garrantziari ere erreparatuko diogu, helburura mugatuzetik haratago.

3.1.1 Euskal Haur eta Gazte literatura XXI. mendera arte

Euskal Haur eta Gazte literatura (EHGL) euskal gizarte eta kulturaren garrantzia handia duen gaia da. Izan ere, lurralde bateko historia jakiteak bertako literaturaren eboluzioa ezagutzeaz gain, haur eta gazteek gizarteko aldaketak nola bizi izan dituzten ikustarazten du. Denboran atzera egingo bagenu, EHGLn herri-kontakizunak eta ahozko literatura izan dira aurrekari nagusiak, ahoz ahoko transmisioaren bitartez iritsi baitira gaurdaino. XIX. mendean, 1804an hain zuzen ere, Mogelen *Ipui onac* argitaratu zen, zeina haurrentzako izanda eduki beharreko eduki moralizatzailearen adibide izan daitekeen, irakaspenak dituzten fabulak ageri baitira bertan (hortik “onac”-a). Honen atzetik letozke (urteetako diferentzian) Iturriagaren *Alegiak*, Goyhetcheren *Fableac edo Aleguiac*, Websterren *Basque Legends* eta Apaolazaren *Patxiko Txerren* (Etxaniz, 2022).

XX. mendean, EHGL sortu eta zabaltzeko ekimenak hasi ziren aurrera eramaten. Hain zuzen ere, 1903an lehen eskola elebiduna sortu zen, eta harekin batera, Lopez Mendizabal testu liburuak (1907) eta Zabalaren *Fábulas en dialecto vizcaino* (1907). 1920ko hamarkadan geroz eta obra gehiago hasi ziren argitaratzen: Barbierren *Supazter chokoan* (1924), Lopez Mendizabalen *Xabierto* (1925), Moulierren *Alegiak* (1926), Mujikaren *Pernando Amezketarra* (1927), Wilderen *Ipuñak* (1927), *Dar-dar-dar* (1928), *Tormeseko itsu-mutila* (1929) eta *Schmid-Grimm* (1929). 1936tik 1950era 90 liburu argitaratu ziren euskaraz, baina hala ere, 1950etik aurrera sortu ziren lan eta autore aipagarriak, eta 60ko hamarkadan gertatu ziren aurrerapen handienak. Izan ere, narrazioak sortzeko era berriak eta gai berriak landu ziren, orduko gazteen interes edo jakin-minei erantzuten zietenak (Etxaniz, 2022).

Era berean, aipagarria da 1969an euskara batua sortzeak ekarritako aberastasuna euskal literaturan, argitaletxe askoren sorkuntza ekarri baitzuen, eta horri jarraikiz, baita hainbat obra aipagarri ere. Besteak beste, *Iker* argitaletxea (1972) eta *Erein* argitaletxea (1977) sortu ziren. 1979an, EAEko elebitasun dekretuaren ostean, *Elkar* argitaletxeak haur liburuak argitaratzeari ekin zion (Etxaniz, 2022). 1982an, aipagarria da *Lizardi Saria* irabazi zuen *Txan fantasma* lana, Mariasun Landak idatzia, oraindik ezaguna ez zen emakume batena hain zuzen ere. Garai hartan bertan, bi fenomeno ezberdinek hartzen zuten presentzia euskal literaturari zegokionean: euskaraz irakurtzeko eskaera handiak eta Europako eta Ameriketako literatur modernoaren eragina euskal idazleengan. Horrela, euskal literatura modernismoan murgiltzen hasi zen. Honekin batera, euskal literaturaren kanporatzeko beharraren eraginez, 1984an, koedizioen bitartez, liburuak erdaratzen hasi ziren (Etxaniz, 2005).

1990ean, euskarazko HGLn eragin positibo handia izan duen elkarte sortu zen: Galtzagorri Elkartea, zeinak HGL sustatzeko eta ezagutarazteko helburua zuen. Bertan euskal haur eta gazte literaturarekin harremana duten eta honekiko ardura hartzen duten hainbat profesionalak hartzen dute parte. 2000. Urtean, gainera, hainbat egitasmo sortu ziren: Liburuen Altxorra/Liburu Ibiltariak eskola txikietara bideratutako egitasmoak; Liburu Gaztea sariketa (gaur egun book trailer lehiaketa); literatur aretoak; Haur Literatura mintegia; Bularretik Mintzora (gaur egun Mintzoan Kux-kux bihurtua); Klis-klasikoak liburu eta app bilduma; Booktuberboom plataforma eta lehiaketa; MarraziOak eta Biko-Teka sortzaileentzako topaketak; Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak eta abar. Horrekin batera, urtean bitan argitaratzen du *Behinola*, Haur eta Gazte Literaturari eskainitako euskarazko aldizkari bakarra (Dosuna, 2020; Galtzagorri, d.g).

3.1.2 Euskal Haur eta Gazte literatura gaur egun

Egun, eta aurrez jarraituriko joerari jarraikiz, geroz eta presentzia handiagoa du Haur eta Gazte literaturak Euskal Herrian, lan eta estilo aniztasuna handitzen doalarik. Euskadi Literatura Sariari (2022) erreparatuz gero, adibidez, album ilustratuen eta olerkigintzaren presentzia azken urteetan hazi egin dela ikus dezakegu.

Gainera, geroz eta askotarikoagoak dira argialetxe txikiek zein lehen aipaturiko Galtzagorri bezalako elkarteek egiten dituzten proposamenak ere, Haur eta Gazte literaturaren sustapenerako ekarpen handia egiten ari direnak. Horien adibide izan daitezke esaterako Galtzagorri Elkartearen (2021) *Gonagorri* podcasta zein *1545 Argialetxeak* (2023) irakurle gazteengan poesia idazteko gogoia piztu asmoz aurrera eramandako *Mare* proiektua.

Horrez gain, literatura beste diziplina batzuekin uztartzeko egin diren saiakerek ere ekarpen handia egin diote egungo HGLri. Horren adibide izan daitezke poesia eta musika uztartzen dituzten proiektu ezberdinak; besteak beste, Jabier Muguruzak hainbat urtetan argitara emandako diskoak. Azkena, aurten bertan atera da, *Txitxarroa eta atuna* (2023), zeinetan Leire Bilbao idazlearekin batera idatzitako letrak abesten diren.

Ildo beretik, aipagarria iruditzen zait poesia eta bertsolaritza uztartzeko egitasmo ezberdinen saiakera. Horren adibide da Gasteizen antolatzen den *Poetak Maiatzean* Nazioarteko Poeta Jaialdia (2023), non *Bertsoak versus* deituriko dinamikan era ezberdinetara poeten eta bertsolarien lana uztartzen den. Gainera, hezkuntzara ekarriz, bertsolaritzak lotura zuzena du hitzekin jolastearekin, inprobisatzearekin etab., hortaz, tresna egokia izan daiteke literatura era ludikoan gelara ekartzeko; batik bat, ahozkotasanari egiten dion ekarpena kontuan hartuta. Horretarako, Bertsozale Elkartearen (d.g) *Bertsolaritza ikastetxean* proiektuko baliabideak baliagarriak izan daitezke. Besteak beste, *Bertso Ikasgela* bezalako plataformetako proposamenak.

3.2 Literatura eta hezkuntza

Literaturak hezkuntzarekin duen zein izan beharko lukeen lotura aztertzea garrantzitsua da lan honetan, guk esku hartu dezakegun eremu zuzena delako hezkuntza. Izan ere, balizko askatasun baten izenean, badirudi orain norberaren esku utzi behar dela ia dena (zer irakurri, nola idatzi etab.), baina horretarako, beharrezkoa da tresna edo baliabide batzuk eskaintzea ikasleari.

Horren harira, Galtzagorri elkartearen *Gonagorri* podcastean Ibon Egañak (2022) heziketa literarioaren inguruko hainbat gako interesgarri ematen ditu. Bertan aipatzen du irakurzaletasunaren izenean, nolabait, ikasleen esku uzten ditugula zereginak, gugandik alboratuz. Izan ere, gaitasun literarioa (ulertuz ez dela irakurketa gaitasuna, literatura irakurri, interpretatu eta gozatzeko gaitasuna baizik) ez da bat-batean ikasten, irakatsi egin behar da, eta bitartekariaren lana trebakuntza horretan laguntzea da. Eskola esparrua izaki, irakasleak egingo du bitartekari lana, eta horretarako, inportantea da irakaslea ere trebatzea. Hortaz, lehenengo pausoa irakasleok trebatzea litzateke, ondoren ikasleak trebatu ahal izateko, dena beraien esku utzi gabe.

Horretarako, garrantzitsua da irakasleek literaturaren inguruko kontzientzia hartzea, hau transmititzeko lanak munta handia baitu. Eta ez da soilik, sarri hala egin ohi bada ere, hizkuntzetako irakasleengan delegatu behar den zeregin bat, irakasle guztien betebeharra izan beharko litzatekeelako ikasgai guztietan lantzea; finean, ikasgai guztietan izango baitu eragina ulermen eta adierazpen gaitasunak. Laburbilduz, irakasleok paperetik, ezinbestekoak diren bi gako dira formakuntza literarioa eta helburuak definituta edukitzea (Triana Castro, 2018). Horrez gain, hainbat baliabide izan daitezke eraginkorrak ikasgelan proposatutako helburu horiek aplikatzeko. Besteak beste, poesia, ahozko literatura eta jolasa elkarreraginean dauden baliabide interesgarriak dira.

3.2.1 Poesia, ahozko literatura eta jolasa

Euskal Haur eta Gazte Poesiari dagokionez, esan beharra dago haur eta gazte literaturan narratibak hartzen duela presentzia handiena, eta poesia lanak ez direla asko izan historian zehar, tendentzia gorakorra izan bada ere. Aurki ditzakegun lanetako asko 80ko hamarkadatik etorriak dira, bereziki folkloreak ondaretik hartuak. Urte batzuk geroago, 90ko hamarkadaren bueltan, haur eta gazteentzako poesiagintzak indar eta prestigio handiagoa hartzen du eta argia da gertatzen den hazkunde kuantitatibo zein kualitatiboan. Karlos Linazasoro (1962), Antton Kazabon (1954), Pello Añorga (1956), Joxan Ormazabal (1948) eta Jabi Santa Cruz (1964) koka ditzakegu garai honetako erreferentziazko poeta gisara. XXI. mendean aurreko urteetako joerari jarraitzen zaio eta geroz eta gehiago dira haur eta gazte literaturan agertzen diren poesia lan eta poesia idazleak (Lopez eta Etxaniz, d.g).

Esan bezala, folkloreak eta ahozko tradizioak eragin handia dute poesiagintzan, eta ukaezina da hauen garrantzia. Xabier Etxanizek *Haur Folkloreak Bilduma* lanean hala dio:

“Folklorea herri baten arimaren ispilua da, herri horren jakituria azaltzeaz gain, Folkloreak gozamina sortarazten digu, irudimena desarroilatzen lagundu, fantasia gehitu eta hizkuntza aberastu. [...] literaturaren mundura hurbiltzen gaituzte eta haurtzaroan garrantzi handia dute, neurri handi batean haurren heziketarako baliapide oso inportanteak direlako.” (1986, 9.or.). Beraz, inportantea da ikasgeletara folkloreak eta ahozko tradizioak utzitako kontu, kantu eta jolasak eramatea. Aipatutako bildumaz eta beste hainbat poesia-liburuz gain, baliagarria izan daiteke esaterako Anjel Lertxundiren *Maria Goikoak batbirulau!* (2011) zein Pello Añorgaren *Din, Dilin, Dan* (2022) liburua, zeina euskal ahozko tradiziotik jasotako formulez, kantez eta poesia ludiko-koralez osatua dagoen.

Anjel Lertxundik (2002) “Haur Poesia Biltzarra” mahai inguruan aipatzen du Errepublika garaiko ikastoletan eta frankismo garaiko lehenengoetan altxor tradizionalak garrantzia handia zuela, irakasleek koaderno handi bat zutela kantuz, jolasez eta poemaz beteta. Biltzar berean Ana Pelegrinek (2002) dioenez, ahozko tradiziozko poesia horrek garrantzia handia du haurren sentikortasun eta iruditegian, haurra irudia eta sinboloa irakurtzera darama. Gaur egun, poesia gaitegietan agertzen bada ere, zalantzazkoa da jolasteko tresna gisara erabiltzen ote den, ezin uler baitaiteke bestela ikasleek poesiarekiko duten arbuioa, Lehen Hezkuntzako azken zikloan batez ere. Garrantzitsua da, hortaz, lehen pausoetan jolasaren bidez iristea poesiaz gozatzera, eta horrek jarraipen egoki bat izatea adinak aurrera egin ahala.

Izan ere, haur literaturarako bi hurbilpen mota bereiz ditzakegu: hurbilpen intelektuala eta hurbilpen ludikoa. Hortaz, ludikoaren bidez intelektualera iritsiko ginateke. Lehen aipatutakoari jarraituz, baina, beharrezkoa da ludikotik intelektualerako saltoa era naturalean eta pixkanaka ematea, ez dadin une batetik bestera poesiarekiko zaletasuna eten.

Haurra eta poesiaren arteko lehen harreman horretan hiru esparru hartu beharko liriateke kontuan: irakurketarena, memorizazioarena, eta deklamazio, abesti eta jolasarena. Lehenengo esparruari erreparatuz, irakurketari dagokionez, aipagarria da helduek ere ez dutela poesia irakurtzen, eta horrek ez du batere laguntzen haurrek poesia irakurtzerako motibazioan, kontuan hartuta gainera, gaiak eta hizkuntza zailtasun bat gehiago direla haurrentzat. Hala ere, memorizazioak gustua ekar dezake, asmakizun eta aho-korapiloak bezalako jolasenak batik bat. Deklamazioarekiko interesa, ordea, galtzen ari dela esan genezake, eta horren ordezkoa izan daiteke dramatizazioa. Bigarren esparruan abestia kokatuko litzatekeela esan dugu, baina kontuan hartuz egun edozeri deitzen zaiola abesti, abestietan txertatutako poemak egiazko poesia izan behar dira. Jolasaren baitan, hainbat jolasteko era erabil ditzakegu: hitz-jolasak (asmakizunak, aho-korapiloak...),

mugimendu-jolasak, dramatizazio jolasak, testu berrien eraketak dakartzaten jolasak eta abar (Lastra, 1997).

Aipaturiko azken horri jarraikiz, garrantzi handikoa da poesiak eta jolasak duten lotura zuzena aztertzea. Juan Kruz Igerabidek (2002) adierazten duenez, “hitzaren jolasa da poesiaren atea”; alegia, haurra poesiarekin harremantzeko lehen pauso hori hitzarekin jolas eginez lortzen da. “Hitz gutxitan, haur poesia ibilbide bat da, hitzarekin jolas egitetik objektu estetikoa eraiki eta gozatzera daraman ibilbidea”. Poesiarekin jolasteko, ia amaigabeak dira dauden aukerak, Carmen Gilen *¡A jugar con los poemas!* (2003) liburuan esaterako, hainbat baliabide ezberdin aurki ditzakegu.

Amaitzeko, garrantzitsua iruditzen zait HGL eremuan esparru hauek batzen dituzten euskal poeta batzuk azpimarratzea. Besteak beste, Xabier Olaso, Leire Bilbao eta Iñigo Astiz. Xabier Olaso gasteiztarrek haurrentzako lan ugari argitaratu ditu, poesiarekin eta ahozkotasunarekin lotura zuzena dutenak. Horrek adibide argia da 2005ean *Euskadi Literatura Saria* jaso zuen *Pupuan Trapua* (2004) poesia liburua, zeinak tradizioa, herri-literatura, umorea eta jokoa dituen oinarri (2022). Era berean, esanguratsua da Leire Bilbao bizkaitarraren lana ere. Poeta honek, hainbat lan sarituz gain (besteak beste *Barruko Hotsak* eta *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*), Xabier Zabala musikariarekin batera *Musua* (Katxiporreta, 2018) eta *Bizi-dantza* (Katxiporreta, 2019) disko liburuak idatzi ditu (Leire Bilbao, 2023). Azkenik, aipagarria da Iñigo Astizen ekarpena haurrentzako *Joemak eta Polasak* (2019) poema liburuarekin (2023). Hortaz, GrALaren atal praktikokoan ikusiko dugun eran, hiru poeta hauen lanak erabilgarri izango zaizkigu literatur tailerretarako.

3.2.2 Curriculumaren azterketa

EAEko curriculum berriaren zirriborroa (d.g), zeresan handia ematen ari da azken boladan; aplikatzeaz dagoen honetan, honek lan-karga handia suposatzen baitu. Hainbat sindikatuk (besteak beste, Steilasek) adierazi dute “etengabeko lege eta curriculum aldaketak eta berauen zehaztasun batzuetan gehiegizkoak, prozesu teknikoegiekin eta konplexuekin bideratzen direla, eta sarri, benetako aldaketa pedagogikoaren ordeaz, burokrazia eta testu sorketa antzua dakartela” (Bueno Saez de Albeniz et al., 2023). Gainera, kontuan hartzekoa da curriculumaren azken proposamen hau zirriborro ofiziala besterik ez dela, eta ikastetxeak, beraz, zirriborro honen arabera lan egitera behartuak izan direla.

Alde horretatik, literaturari erreferentzia egiten dioten atalei erreparatuko diegu hauen inguruko hausnarketa egin ahal izateko. Kasu honetan, curriculumak “euskara eta literatura

eta gaztelania eta literatura” izenburupean dakar literaturari egokituko litzaiokeen arloa. Aipatzen denez, “Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak eraginkortasunez eta gaitasunez erabiltzea” izango litzateke Lehen Hezkuntzako etapa amaitzen denerako helburua. Gehitzen da “gizarteak pertsona kultuak, kritikoak eta ondo informatuak eskatzen dituela, beren kabuz ikasteko, informatzeko, kolaboratzeko eta taldean aritzeko gaitasuna dutenak; sortzaileak eta ekintzaileak”. Ondoren aztertuko dugu nola gauzatuko litzatekeen hori praktikan.

Azkenik, aipagarria izan daiteke “arlo honek etapako gainerako arloei egiten dien ekarpena eta ematen dien laguntza funtsezkoa eta ezinbestekoa dela”, “komunikazio-izaera eta izaera instrumentala baitu”. Izan ere, hasieratik aipatu dugu irakurketak eta idazketak eragin handia dutela bizitzako esparru guztietan (eta, beraz, baita gainerako ikasgaietan ere), eta, hortaz, baliagarria da gaitasun hauek lantzea. Hemendik aurrera LHko hirugarren zikloko kompetentzia eta ebaluazio-irizpideetan oinarrituko gara, ziklo hori izango baita geroago azalduko dugun proposamenaren ardatza.

Curriculumaren atal hau aztertu ostean, formalismoarekiko zaletasunak harritu nau gehien, izan ere, kompetentzia espezifikoetan sarri aipatzen da egoera zein testu formaletan nola jokatu/idatzi lantzea garrantzitsua dela. Ordea, hasieran “ikasle ekintzaile eta sortzaileak” beharrezkoak direla aipatzen badu ere, sormena hezkuntza arautura mugaturiko jarduera soil bezala islatzen dela ikusi dut. Eta hori bera da hasieratik aipatzen nuen arazoa, ikasleen motibazioa bilatu ezean, ikasleei irakurtzen eta idazten irakatsi ezean, inor gutxiri gustatuko zaio, eta inor gutxik nahiko du sortu. Beraz, laburbilduz, esan genezake sormenaren bultzatzaile izan nahi badugu, beharrezkoa dela hori nola egingo dugun zehaztea.

3.3 Literatura tailerrak

Literatura tailerrak ikasteko zein hausnartzeko espazio sortzaile bat dira, irudimena eta sormena garatzen lagundu nahi dutenak. Bertan norberaren lanak parteka daitezke, gainontzekoen feedbacka jaso eta teknika eta idazketa hobetuz. Hainbat izen ezberdinekin ezagutzen dira: idazketa sortzaile tailerrak, literatura sormen tailerrak, irakurketa eta idazketa tailerrak, literatura tailerrak eta abar. Lan honetan zehar esanahi berarekin erabiliko ditut, kontuan hartuz terminoa edozein dela ere, hasieran azaldu bezala, ez diotela idazte hutsari egiten erreferentzia, idazketa era literario batean egiteari baizik.

Literatura tailerrak, idazketa gaitasuna lantzeko baliabide garrantzitsua izateaz gain, Lehen Hezkuntzako ikasleek irudimena eta literaturarekiko interesa pizteko balio dezakete. Tailer hauen bitartez, ikasleek literatur genero ezberdinak zein literatur erreferente ezberdinak ezagutu ditzakete. Gainera, idazketa gaitasuna eta konpetentzia kritikoak indartu ditzakete. Hortaz, esan genezake hainbat funtzio bete ditzakeela: irakurtzen eta idazten era kritikoan ikastea, gaitasun linguistiko eta literarioak garatzea eta ikasleen sormena eta irudimena sustatzea. Kohan eta Rivadeneirak (1991) adierazten dutenez, espazio hauetan aldakuntza amaigabeak egin daitezke (hitzekin jolastu, mitoak ezagutu, umorea erabili...), hainbat autore ezberdin ezagutu ditzakegu eta ekoizpen mekanismo ezberdinen inguruan hausnartu eta eztabaidatu daiteke idazketa mota ezberdinak deskubritu eta idazlanak era berrietan sortzeko (Coto, 2002).

Hainbat literatura tailer mota aurki ditzakegu, zeinak elkarreraginean ere egon daitezkeen. Tailer mota bat poesia tailerra izan daiteke, non ikasleek errima, erritmo eta metrikarekin jolastuz poemak egiten ikas dezaketen, eta gai eta estilo poetiko ezberdinak landu daitezke (Almagro, 2018). Beste adibide bat tailer narratiboena izan daiteke, non ipuinak egitea den helburua, hainbat metodologia ezberdin baliatuz. Dramagintza tailerrak ere badaude, non antzerki obrak idazteaz gain, ahozkotasunarekin harremana duten hainbat jarduera eraman daitezkeen aurrera, eszena eta dialogo ezberdinekin, adibidez txotxongiloak erabiliz (Córdova, 2017). GrALaren atal praktikoan, hiru tailer mota hauetatik berreskuratutako jarduerak uztartuko dira.

Hainbat autore ezberdinen ekarpenak garrantzitsuak izan dira idazketa tailerretan, besteak beste, Gianni Rodari eta Victor Moreno. Gianni Rodari idazle eta pedagogoa italiarra izan zen, eta ekarpen handiak egin izan ditu haur literaturari eta idazketa tailerrei dagokienean. *Gramática de la fantasía* (1977) liburuan irudimena eta sormena lantzeko teknika ezberdinak lantzen ditu. Bestalde, Victor Moreno unibertsitateko irakasle eta idazlea da, eta poesiaren munduan ekarpen handiak egin ditu. *Va de poesía* (1998) liburuan hizkuntzarekin jolasteko, berreraikitze eta poema bilakatzeko jarduera ezberdinak proposatzen dira, hauek ere ikasleen sormena bultzatze aldera.

Horrelako jarduerak aurrera eramaterako orduan, garrantzitsua da ebaluazio moduak aztertu eta egokiena zein izan daitekeen erabakitzea. Aukera egoki bat ebaluazio jarraituarena izan daiteke, non ikasleek sorkuntza prozesuan haien lanaren eta aurrerapenaren inguruko feedbacka jaso dezaketen. Horrela, era konstante batean ebalua daiteke idazketa eta irakurketa gaitasunen garapena; izan ere, bukaerako ebaluazioak baliteke haien aurrerabidea ez baloratzea. Era berean, etengabeko autoebaluazioak ere garrantzia handia

hartu beharko du (Castillo, 2008). Hala ere, inportantea izan daiteke ikasleei haien lana aurkezteko tartea ere uztea, eta bukaeran ebaluazio bat egitea. Bukaerako koebaluazio hau irakaslearen eta ikaskideen arten egitea gomendatzen da, lanaren kalitatean, originaltasunean eta adierazpen gaitasunean oinarrituta.

Laburbilduz, esan dezakegu sormen tailerrak (era ezberdinetakoak) ikasleen heziketa prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeela, haien gaitasun linguistiko eta literarioa garatzeko, irudimena lantzeko eta irakurketa eta idazketa kritikoa bultzatzeko. Hortaz, inportantea da horrelako praktikak sustatzea ikasgelan plangintza egoki eta sortzaile bat garatuz.

4. HELBURUAK

Curriculumaren azterketan honen arabera esku-hartzeak beteko lituzkeen ebaluazio-irizpide eta jakintzak adierazi baditut ere, neronek proposamen honen aurrean finkatzen ditudan helburuak zehaztea gustatuko litzaidake.

Aipatu gisara, lan honetan ikasleek irakurzaletasunarekin, idazketarekin eta ahozkotatasunarekin duten harremana aztertu nahi izan da, eta horren aurreko esku-hartze bat proposatzera eraman nau. Hortaz, esan genezake helburu nagusia ikasleek literatura tailerren bitartez idazketa eta ahozkotatasunarekin esperimintatu eta gozatzea dela. Hala ere, proposamenak ikasleei begirako hainbat azpi-helburu beteko lituzke. Besteak beste:

- Ahozkotatasunaren eta idazketaren garrantzia ulertzea horren bitartez motibazioa lortuz.
- Ahozko zein idatzizko komunikazio-gaitasuna hobetzea.
- Poesiarekiko arbuioa deuseztatu eta honekin gozatzen ikastea.
- Jendaurrean egoteko abilezia lantzea.
- Irudimena bultzatzea norberaren zein taldeko sorkuntzen bitartez.
- Autoestimaren garapena norbere sorkuntzak besteekin partekatzerakoan, besteekin sortzerako orduan norbere aportazioekin eta komunikazio gaitasuna garatzearen bitartez.
- Talde lanean jarduteko gaitasuna garatzea, norbere ideiak gehituz eta gainontzekoenak kontuan hartuz.
- Hausnarketarako gaitasuna eskuratzea, bai sortutakoen eta baita jasotakoen inguruan.
- Autoebaluazio eta koebaluazioa lantzea.

Era berean, lan honi xede pertsonalak ere esleitu nahiko nizkioke. Hortaz, GrAL honen ikasketa prozesua dela eta, honako helburu hauek zerrendatuko ditut jarraian:

- Haur eta Gazte literatura sakonki aztertu eta ezagutzea
- Ikasleek idazketa eta ahozkotasanarekiko duten jarrera aztertzea
- Literatura tailerrek ikasleentzat dakartzaten onurak identifikatzea
- Idazketa eta ahozkotasun tailerretan erabil daitezkeen teknika eta estrategia ezberdinak aztertzea irudimena eta gaitasun komunikatiboa hobetzeko
- Literatura tailerren eraginkortasuna ebaluatzen ikastea

5. HITZARI JOLASA, BIZITZARI ARNASA

5.1 Sarrera

Aurretik adierazi bezala, proposamen hau egiteko, aurtan Practicum III-an bizi izandako esperientzia baliatu dut. Practicumean zortzi saio proposatu nituen, eta horietako lau aurrera eramanez (beste laurak probatzeko denbora nahikorik ez nuelako). Hortaz, esperientzia horretatik eskuratutako ondorioak kontuan hartuz, ondoren adieraziko den bezala, saioetan zein prestakuntzan hobekuntzak proposatzen dira alor ezberdinei dagokienean (taldekatzeak, denboraren kudeaketa, etab.). Hau horrela, zortzi saioko literatura tailerrak proposatzen dira, azken zikloko ikasleei bideratuta. Saio bakoitzak ordu bateko iraupena du (taldearen arabera moldagarria izango den arren), eta metodologian azalduko den bezala, hasieran bost minutuko irakurketa bat egongo da eta bukaeran hamar minutu ebaluaziorako.

Lehenengo saioan, sarrera gisara, idazketarekin esperimentatuko da, hitzak eta esanahiak asmatuz, gehienbat jolasen bitartez. Bigarren saioan idazketarekin jarraituko dugu, baina taldean jardungo dugu, idazketa kolektiboak izango baititugu abiapuntu (era ezberdinetako sorkuntzak aurrera eramateko). Hirugarren saioan idazketa eta ahozkotasuna elkartuko ditugu bertsolaritzarekin zerikusia duen jolas baten bitartez. Laugarren saioan poesia eta irudiaren arteko loturarekin jolastuko dugu, hitz-jokoak tarteko izanik. Hurrengo saioan poesia, gorputz adierazpena eta ahozkotasuna elkartuko ditugu, gidoiak sortzen hasiz eta ditugun gidoiak baldintza kontretu batzuen bitartez errezitatzen ikasiz. Seigarren saioan ahozkotasanarekin esperimentatuko dugu, aho-korapiloak oinarri harturik hasieran eta ahozko gidoi inprobisatuak sotuz azkenik. Hurrengoan gure gorputza hizkuntza nagusitzat erabiltzen ikasiko dugu, adierazpen ezberdinen zein itzalen bitartez. Azkenik, tailerrari

bukaera eman eta egindakoa borobiltzeko asmoz, egindako lanen baten errezitaldia gauzatzeko proposamena egingo dugu.

5.2 Metodologia

Marko teorikoan azaldu bezala, poesia, ahozko literatura eta jolasa estuki lotuta doazen eta elkar elikatzen duten hiru kontzeptu dira. Hortaz, lan honetan hirurak uztartuko dira jarduera ezberdinen bitartez. Saio bakoitzean gutxienez jolas bat edo jarduera ludiko bat proposatuko da; izan ere, jarduera ludikoa erakargarri eta motibagarria da eta horrek ikasleen interesa pizten laguntzen du. Gainera, komunikazioa ezinbestekoa da eta sortzen den giro erosoak ikasleek euren estrategia propioak sor ditzaten laguntzen du (Chacon, 2008).

Horrez gain, bada saioz saio errepikatzen den beste ariketa bat: irakurketa. Saioei hasiera emateko, irakasleak erreferentziako literatura lan baten zati bat irakurriko die ikasleei. Honen bidez, ikasleek literatura lan ezberdinak ezagutu ahalko dituzte, irakurketarekiko motibazioa sustatuz. Finean, prozesu kognitiboen baitan hiru etapek hartzen baitute parte: ahozkotetasunak, irakurketak eta idazketak, eta garrantzitsua da hirurak konektatuta egotea, bateko motibazioak besteko hobekuntza ere eragingo duelako (Allende, 2022).

Espazioari dagokionean ere, kontuan hartzekoa da talde handian proposatzen diren jarduerak borobil handi batean kokatuta egitekoak direla orokorrean, ez irakasleari begirako lerroetan. Izan ere, horrek elkarren arteko komunikazioa errazten du, eta ikasleen iritzia ematea erraztu dezake. Horrez gain, aukera egonez gero, komenigarria izan daiteke ikasgela arrunta ez den beste gela batera joatea, sormena susta dezakeen gela batera, argiztapen egokia eta mugitzeko espazioa bermatuko duena. Bestalde, talde txikiak sortzerakoan, garrantzitsua da ariketa azberdinetarako taldekatze mota ezberdinak sortzea, eta ez uztea beti nahi duten bezala egiten taldeak. Horretarako, *Euskal girotze barnetegiak (Oinarri, jolas eta teknika hezitzaileak)* (2019) liburuan proposatzen diren hainbat estrategia erabil daitezke:

- Aulki beroa: Irakasleak "aulki beroa! esatean ikasleak dauden lekutik altxatu eta beste aulki batean eseri beharko dira. Irakasleak nahi beste aldiz errepika dezake pausoa.
- Gometsak kopetan: Taldekideek begiak itxi eta irakasleak bakoitzari gomets bat jarriko dio. Begiak irekitzean, mimika erabiliz gometsen koloreen arabera banatuko dira taldetxoak osatzeko.
- Koloretako makiltxoak: Poltsa batean koloretako makil txikiak sartuko ditugu, partaide bakoitzak bat hartu eta kolore horien arabera elkartuko dira taldeka.

- Puzzle txikiak: Puzzle egokiak aukeratuko ditugu (taldekide kopuruaren arabera) eta bakoitzari pieza bat banatu. Puzzle bera osatzen duten kideek osatuko dituzte dinamikarako taldeak.

5.3 Konpetentzia orokorrak, espezifikoak eta oinarrizko jakintzak

Helburuen atalean neronek proposamen honi esleitutako helburuak zehaztu baditut ere, aurretik aipatutako EAEko curriculumaren zirriborrotik (d.g) beteko lituzkeen hainbat helburu, konpetentzia eta eduki betetzen ditu literatura tailerren proposamen honek.

Konpetentzia orokorreari dagokienez, hauek izango lirateke esku-hartze honen bitartez indartuko liratekeenak:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Konpetentzia eleaniztuna.
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- Herritartasunerako konpetentzia.
- Ekintzailtza-konpetentzia.
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Konpetentzia espezifikoetara joko bagenu ordea, honakoak beteko lituzke:

- Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.
- Bat-bateko edo araututako ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren arauak errespetatuz eta entzule aktiboko, kooperazioko eta elkarrizketa-enpatiako estrategiak garatuz.
- Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan modu aktiboan parte hartzea.
- Beren adinerako egokiak diren literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko askotariko autoreren testuak gero eta autonomia handiagoz entzutea eta irakurtzea, testuak gaien arabera eta literatura-generoaren funtsezko alderdien arabera erlazionatuz eta bestelako adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatuz, baloratuz eta interpretatuz.
- Testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, gero eta autonomia handiago eta literatura-asmoz sortzea, eredu jakin batzuk sormenez eta zenbait euskarritan birlanduz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.

- Literatura asmoko testuen irakurketak eta produkzioak ongizate emozionalari egiten dion ekarpena baloratzea, irakurritakoa eta idatzitakoa norberaren eta besteen sentimenduen adierazpenarekin eta kudeaketarekin erlazionatuz.
- Talde-lanean modu aktiboan parte hartzeko oinarrizko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin eta esleitzen zaizkion banakako erantzukizunak bere gain hartuz, eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzea, argudiatuz eta sormenezko irtenbideak proposatuz.

Azkenik, hirugarren zikloko oinarrizko jakintzen artean, hauek izango lirateke lan honetan proposatzen diren idazketa tailer sortzaileek beteko lituzketenak:

- Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziazko abestiak (bertsoak, abesti tradizionalak...)
- Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.
- Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.
- Komunikazio-egoeraren araberrako ahoskera eta intonazio egokiak.
- Gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko prozesuan, entzute aktiboko estrategiak, asertibitatea eta sormenezko irtenbide-proposamena.
- Hitzezkoa ez den komunikazioaren oinarrizko elementuak interpretatzeko eta erabiltzeko estrategiak.
- Banako eta partekatutako irakurketa espresiboa, intonazio eta erritmo arinarekin.
- Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatziak eta multimodalak planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarrizko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak eta zenbait komunikazio-helbururekin.
- Ezagutzaren sormenezkok komunikazioa, jabetza intelektuala errespetatuz.
- Literatura-testuak eta gero eta autonomia handiagoz interpretatzeko oinarrizko teknikak.
- Euskal-kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.
- Literatura-testuak modu librean eta emandako ereduetatik abiatuta sortzeko jarraibideak, genero-ikuspegia kontuan izanik.
- Literaturaren eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko loturak.

5.4 Jardueren programazioa

1. SAIOA: Idazketarekin esperimentatzen			
DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	Gianni Rodariren <i>telefonozko ipuinak</i> liburuko <i>Brif, bruf, braf</i> ipuina irakurriko diegu, sarrera egiteko hitzen esperimentazioari eta ulermena gauzatu dadin hitzez gain dauden elementu ezberdinen inguruan hausnartu ahal izateko (tonua, bolumena, keinuak etab.).	- Telefonozko ipuinak liburua (1983)
15'	SILABAKA HITZAK ASMATUZ	“Silabaka hitzak asmatuz” jolasa sormena eta inprobisazioa garatzeko baliatuko dugu. Borobil batean kokatuko gara eta kide bakoitzak silaba bat esango du (3 kidek esaten duten arte). Ondoren, borobileko hurrengo pertsonak hitz horrek zer esan nahi duen azalduko du (asmatuko du, alegia) . Amaitzean hurrengo lau pertsonen txanda izango da, formula berdina errepikatuz. Garrantzitsua da ariketa azkar joatea eta dinamikotasunez eramatea aurrera, hori izango baita inprobisazioaren eta hitzezko esperimentazioaren bidezko jolasaren funtsa. Askotan taldeak osatzerako orduan izen original bat topatzea kosta egiten zaienez, hau taldearen izena sortzeko bide bat izan daitekeela gogoraraziko diegu. Adibidez: Lehenengo kideak “KA” esango du, bigarrenak “RO” eta hirugarrenak “TO”. Laugarren pertsonak “Sortu den hitza karroto da eta karrotoak barazki more bat dira,	Ez da material berezirik behar

		zapore nahiko garratza dute eta niri entsaladan jateko gustatzen zaizkit”. Edozein definizio, datu edo esperientzia kontatu ahalko du asmatzaileak hitz horren inguruan.	
30'	HITZ ASMATUA DESKRIBATUZ	Hirunaka jarrita, aurreko jolasari jarraipena emanaz, bakoitzak silaba bat esanda hitz berri bat asmatuko dute. Gustoko duten hitza topatzean, bakoitzak hitz horren esanahia idatziko du paper batean, ahoz egindako deskribapena baino apur bat garatuagoa sortuz. Hiru kideek deskribapena amaitzerakoan, elkarri irakurriko dizkiote haien sorkuntzak, eta bigarren idazketa bat egingo dute hiru definizioak nolabait bateratuz.	- Idazteko materiala
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

2. SAIOA: Idazketa kolektiboa

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	<i>Plastikozko loreak</i> (2017) narrazio kolektiboa aurkeztuko diegu. Ondoren, bertako pare bat kapitulu irakurriko dizkiegu.	- <i>Plastikozko loreak</i> liburua (2017)
15'	IDAZKETA AUTOMATIKOA	Romanek (2022) adierazten duenez, idazketa automatikoa idazten duenaren pentsamendu kontzientetik datorren prozesu edo emaitza da. XX.mendean surrealisten asko erabiliriko teknika da, eta Andre Breton	- Orri zuriak - Musika lasaia (letrarik gabea)

		<p>maisu aipagarria da. Berak azaltzen duenez, ariketa honetarako azkar idatzi behar da, gairik gabe, edozer, akatsak egiteko beldurrik izan gabe (Martinez, 2018).</p> <p>Hortaz, ikasle bakoitzari orri zuri bana banatuko diogu, eta hiru esaldiren hasierak emango dizkiegu (banaka). Azkar eta burura datorkien lehenengoa idatzi behar dutela azalduko diegu, eta uneren batean zuriz geratuko balira, “patata” hitza ipintzeko (behar beste aldiz, gelditu gabe) berriz ere zer idatzi bururatzen zaien arte. Bi minutuz hiru testu sortu beharko dituzte. Nahi izanez gero, letra gabeko musika jarri ahal izango da, betiere isiltasuna bermatuz.</p> <p>Hasiera posibleak:</p> <p>“Ni zu banintz...”</p> <p>“Zu ni bazina...”</p> <p>“Hegan egiten jakingo banu...”</p> <p>“Triste nagoenean...”</p> <p>“Ez zait gustatzen...”</p>	
35'	KONTAKIZUN KOLEKTIBOAK	<p>Kontakizun kolektiboak¹ osatzeko taldeka elkartuko gara (4-6 pertsonako taldeetan). Bakoitzak orri zuri bat izango du, eta bertan ipuin baten hasiera idatzi beharko du, letra txikiarekin. Behin hasiera idatzita (esaldi bat edo bi, azkar egiteko ariketa bat da), hurrengo kideari pasako dio papera. Hurrengo kideak aurrekoak idatzitakoa irakurriko du, eta atzerantz tolestuko du (hurrengo kideak ikus ez dezan). Behin tolestuta, zati horren jarraipena gehituko dio</p>	- Orri zuriak

¹ ikus. [Kontakizun kolektiboak](#)

		<p>paperari, eta hurrengo kideari pasako dio. Norbere papera bi aldiz izan arte jarraituko dugu pasatzen, eta hirugarrenez gure papera tokatzen zaigunean, bukaera idatziko dugu, gure hasiera gogoratuz eta zentzua ematen saiatuz. Bukaera idatzi eta gero, papera zabaldu eta sorkuntza kolektibo osoa irakurriko dugu, lehenik bakarka eta ondoren taldeetan.</p> <p>Ariketa hau posible da ipuinekin zein poemekin egitea.</p>	
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

3.SAIOA: Definizio eta inprobisazioarekin jolastuz

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	<p>Etxanizen <i>Haur folkloreaken bildumatik</i> (1986) eskuratu daitezke haurrentzako dibertigarriak izan daitezkeen hainbat asmakizun:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Puntan punta bat, atzean zulo bat. (Orratza) 2. Zer dela eta zer dela kenduaz hazi eta gehitzen dena? (Zuloa) 3. Ipurditik zangorik ez, gorputzatik besorik ez, lepotik bururik ez. (Botila) 4. Beti sutan eta sekula ez erretzen. (Labea) 5. Beti lehorrean eta beti bustita. (Mihia) 6. Puntan punta bi, atzean zulo bi. (Artaziak) 	- <i>Haur folkloreaken bilduma</i> liburua

5'	DEFINIZIOEN INGURUAN HAUSNARTZEN	Hiztegi bat hartu eta ikasle batek ausazko orrialde batean zabalduko du. Bertako hitz bat aukeratu eta definizioa irakurriko du. Hiru-lau definizio irakurri ostean, definizioaren ezaugarriak identifikatzen saiatuko gara (laburra da, ez du definitu beharreko hitza erabiltzen, objektiboa da...).	- Hiztegia
10'	DOINUA IKASI	“Baldarrak” doinua ikasiko dugu (Bertsolaritza hezkuntza arautuan landu badute ziurrenik jakingo dute). Horretarako, audioa pare bat aldiz jarri eta denon artean kantatuko dugu.	- Proiektorea
35'	PASA HITZA	Bi taldetan banatuko dugu ikasgela, talde bakoitzari borobilean kokatzeko eskatuko diogu, eta erruleta bat izango du Atik Zrako letrekin. Irakasleak definizioa ² kantatuko dio lehenengo talde bati eta ondoren besteari, ikasitako doinuko lehenengo puntua baliatuz. Tokatzen zaion taldeak erantzuna zein den pentsatu beharko du (puntuarekin errimatu beharko du) eta horrekin koplaren erantzuna pentsatu beharko dute. Pentsatutakoan (azkar izan beharko da, 5 segundu inguru izango dituzte) taldekide bat altxatu eta puntua kantatuko du. Zuzena izanez gero letra berdea kokatuko da erroskoan, okerra izanez gero gorria, eta “pasa-hitza” esanez gero hutsik utziko da, erronda amaitzean berriz ere erantzuteko aukera emanaz.	- Erroskoa
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

² ikus. [Pasa hitzak](#)

4.SAIOA: Poesia hieroglifikatzen

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	Kasu honetan, guk irakurri beharrean, Iñigo Astizen <i>Joemak eta Polasak</i> (2019) bildumako bi poemaren bideoak jarriko dizkiegu, non testua, ahotsa eta ilustrazioa uztartzen diren: Igogailuan ³ eta Duelua ⁴ .	- Proiektorea
10'	EROGLIFIKOAK	Lehenbizi, <i>Mihiluze</i> programako bost minutuko bideoa jarriko diegu (aukeran haurren programako zati bat), non eroglifikoak agertuko diren, eta haurrak horiek asmatzen, haiei ere asmatzeko gogoia piztu dakien. Ondoren, guk sortutako ⁵ zein interneten topatutako eroglifiko ezberdinak erakutsiko dizkiegu pantailan, eta dakienari zutitzeko eskatuko diogu. Lehenengo zutitzen denak erantzuna emateko eta gainontzekoei azaltzeko aukera edukiko du.	- Proiektorea - Power pointa eroglifikoekin
15'	EROGLIFIKOAK SORTZEN ETA ASMATZEN	Lau-bost pertsonako taldeetan banatuko ditugu ikasleak eta bakoitzak 10 minutu izango ditu hitz batetik abiatuta eroglifiko ⁶ bat sortzeko. Ondoren, banaka denei erakutsi eta gainontzeko taldeak esanahia asmatzen saiatuko dira.	- Orri zuriak - Idazteko materiala

³ Igogailuan: <https://www.youtube.com/watch?v=ESuNPw4PPtw>

⁴ Duelua: <https://www.youtube.com/watch?v=d9W1Pqtgrg>

⁵ ikus. [Eroglifiko proposamenak](#)

⁶ ikus. [Taldeka eroglifikoak sortzen](#)

20'	POEMAK HIEROGLIFIKATZEN	Ariketa honetarako poema ezberdinak banatuko dizkiegu ikasleei, eta horietan oinarrituta hieroglifiko ⁷ bat edo marrazki bat sortu beharko dutela esango diegu. Ondoren, aukera egon daiteke alde batetik gainontzeko taldeek poemak irudi edo hieroglifikoekin lotzeko; eta bestetik, ikasgelako pasabidean erakusketa txiki bat egin dezakegu sorkuntza poemarekin batera itsatsiz.	- Idazteko materiala - Koloretako kartulinak
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

5.SAIOA: Poesia, gorputz adierazpena eta ahazkotasuna

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	<i>Piztipoemak</i> liburuko "Glu, glu" poema errezitatu.	- <i>Piztipoemak</i> 2016 liburua
20'	KARTEKIN ANTZEZLANAK SORTU	Lehenik eta behin hiru-lau pertsonako taldeetan banatuko ditugu ikasleak. Bertso eskolako gaiak sortzeko kartak (d.g) baliatuko ditugu jarduera honetarako. Kartetan pertsonaia bat (edo bi), emozio bat eta egoera bat azalduko zaigu, eta ausaz, bana hartuko du talde bakoitzak. Hor agertutako pertsonaia, egoera eta emozioa batuz antzerki labur bat sortu beharko dute	- Gaiak sortzeko kartak

⁷ ikus. [Poemak hieroglifikatzen](#)

		taldeka. Prest dutenean, taldeak binaka elkartu eta elkarri aurkezteko aukera edukiko dute.	
5'	PIZTIPOEMAK AURKEZTU	Berriz ere talde osoa borobilean kokatu eta Leire Bilbaoren <i>Piztipoemak</i> liburua aurkeztuko diegu, honen ezaugarri bereizgarrienak aipatuz, eta nahi izanez gero, poemaren bat edo beste errezitatuz. Horrela, poesia lan esanguratsuak ezagutzeko aukera edukiko dute.	- <i>Piztipoemak</i> liburua
20'	BALDINTZEKIN PRAKTIKATU	<i>Piztipoemak</i> liburutik baliagarriak izan daitezkeen poemak aukeratuko ditugu, eta testu bakoitzerako baldintza dibertigarri ezberdinak sortuko ditugu (oihukatuz irakurtzea, mingaina kanpoan dutela irakurtzea, hitz bakoitzaren ostean salto egitea etab.) eta sobre batean sartu. Sobrearen kanpoaldean zein poema den eta zenbat ikaslek errezitatzeko den jarriko dugu, eta beraiek nahi duten bezala taldekatu eta nahi duten gutunazala hartuko dute. Ondoren, hor agertzen diren baldintzekin praktikatu dute errezitaldia. Prest dutenean, bi talde elkartu eta elkarri errezitatzeko aukera edukiko dute.	- Poemen kopiak prestatuta - Sobreak baldintzekin
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

6.SAIOA: Ahozkotasunarekin esperimentatzen

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	Xabier Olasoren <i>Auskalo! (Igarkizun eta aho korapiloak)</i> (2001) liburutik eskuratutako aho korapiloak irakurriko dizkiegu, beraiei errepikatzeko aukera emanez.	- <i>Auskalo! (Igarkizun eta aho korapiloak)</i> liburua
10'	TELEFONO MATXURATUA	Borobil batean kokatuko gara guztiok eta lehenengoari aho-korapilo bat xuxurlatuko diogu belarrira. Hurrengoari esango dio belarrira (behin bakarrik errepikatu ahalko da) eta bukaerako aho-korapiloa hasierakoarekin konparatuko dugu. Errepertorio literariotik (d.g) eskuratutako prosamenak: <ul style="list-style-type: none"> - Sanson zein zan? Sanson Sanson zan! - Zubiri zubiri, zazpi zaldi, zubiri zubiri Olarizutik. - Tantarik tanta, euriak kanta, hodeiak zutik eta erreka etzanda! - Kamamila, mantzanila, etxean gabiltza bila eta bila. 	Ez da material berezirik behar
15'	ISTORIO KATEATUAK	“Kontakizun kolektiboak” ariketaren antzekoa izango da hau, baina dena ahoz. Borobil batean kokatuko gara denok, eta lehenengoak ipuin baten lehenengo esaldia asmatuko du ozenki. Hurrengoak, esaldi bat gehitu beharko dio aurrekoari, istorioari jarraipena emanez. Kide guztiek gehitu beharko dute haien esaldia (borobileko kokapena jarraituz), eta azkenak bukaera eman beharko dio.	Ez da material berezirik behar

10'	BINOMIO FANTASTIKOA AHOZ	Lau-bost pertsonako taldeetan banatuko ditugu ikasleak, eta bakoitzak hitz bat idatziko du papertxo batean. Paper guztiak erdian kokatuko dituzte, eta txandaka, istorio bat osatuko dute ahoz, paper horietan agertzen diren hitzak txertatuz.	Ez da material berezirik behar
10'	AMAITUTAKO HIZKIAREKIN HASIZ	Taldea bitan banatuko dugu, eta bi borobil osatuko dituzte. Lehenengo kideak hitz bat esango du, eta bere ondokoak, hitz horren amaierako hizkiarekin hasten den hitz bat esan beharko du. Horrela, katea osatuz joango gara norbait hitzik gabe geratzen den arte. Orduan, berriz hasiko gara beste hitz bat hautatuz.	Ez da material berezirik behar
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

7.SAIOA: Gorputz adierazpenarekin esperimentatzen

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
5'	IRAKURKETA	Oier Guillanen <i>Mr. Señora</i> (2016) liburuko lehenengo gidoia antzeztuko diegu.	- <i>Mr. Señora</i> liburua
15'	TELEFONO MATXURATUA	Aurreko eguneko jolasari (telefono matxuratua) jarraipena emango diogu, baina oso modu ezberdinean. Azalduko diegu, egun, telefonoen bitartez ahotsa ez	Ez da material berezirik behar

	KEINUZ	ezik irudiak zein mugimenduak ere bidal ditzakegula. Hortaz, kasu honetan keinu edo mugimenduak bidaliko ditugu telefonoaren bitartez. Horretarako, ilara batean (edo gehiagotan) jarriko dira ikasleak, denak alde berera begira. Ilararen puntan dagoenak bira emango du eta bere atzean zegoenari keinu edo mugimendu bat egingo dio. Mezua jaso duenak keinu hori bera egin beharko dio bere ilarako atzekoari. Mezua ilararen bukaeraraino iristen denean, hasierako keinua eta bukaerakoa konparatuko ditugu.	
10'	ESPARRU BAKOITZA EMOZIO BAT	Ariketa honetarako gela esparru ezberdinetan banatuko dugu (klarionaren edo zintaren bitartez egin dezakegu) eta esparru bakoitzari sentimendu edo emozio bat esleituko diogu. Esparru horretan gauden bitartean, gorputzarekin emozio hori azaldu beharko dugu. Ariketak bi atal izango ditu (bakoitza 5 minutukoa): Lehenengoan ikasleak libre ibili ahalko dira espazioan zehar, nahi duten espazioan zehar mugituz (betiere esparru bakoitzeko sentimenduaren arabera jokatzuz). Bigarreanean egoera ezberdinak planteatuko ditugu, eta bakoitza nola sentituko litzakeen pentsatuz kokatuko da ikasgelako esparruan. Adibidez: “Norbaitek nire bizkarretara txarto hitz egin du”, “zuretzako garrantzitsua den norbaitek egindako lanagatik zoriondu zaitu” etab.	- Klariona edo zinta (lurra markatzeko)
20'	ITZALEKIN JOLASTUZ	Jarduera honetan oihal zuriak kokatuko ditugu gelan zehar, eta bakoitzaren atzean foko bat ipiniko dugu (gela ilunetan dagoelarik). Lau-bost pertsonako taldeetan gorputzarekin eta argiarekin jolasteko aukera izango dute, elkarri gomendioak emanez eta irudiak zein antzerki laburrak sortuz. Ondoren, forma ezberdinak sortuko dituzte paperarekin, eta zotz luzeak itsatsi. Azkenik, forma	- Oihal zuriak - Orri zuriak - Artaziak eta pegamentoak - Zotzak - Linternak

		horiek eta haien gorputzak baliatuz irudi edo antzerki labur bat sortuko dute taldeka.	- Fokoak
10'	BALORAZIOA	Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.	- Idazteko materiala

8.SAIOA: Gure lanen errezitaldia

DENB.	EKINTZAK	AZALPENA	MATERIALA
10'	ENTSEGUA	Aurreko saioan azalduko zaien bezala, ikasleek tailerretan zehar egindako lan bat aukeratu beharko dute (hitz asmatuaren deskribapena, idazketa automatikoko testua, kontakizun kolektiboa, poema bikia, poemaren hieroglifikazioa edo haien kabuz sorturiko beste testuren bat), eta entseguan aukera izango dute besteen aurrean lan hori nola aurkeztuko duten erabaki eta entsaiatu ahal izateko. Kide bakoitzak lan bat aurkeztuko du, baina nahi izanez gero, aukera edukiko dute beste kideren bati haien lana aurkezteko laguntza eskatzeko.	- Norbere/taldeko testuak
5'	IRAKURKETA	Irakasleak sortutako testu bat aurkeztuko zaie ikasleeei, eta ostean, errezitaldiaren aurkezpena egingo du, arauak azalduz eta momentuari emozioa emanaz.	- Irakasleak sortutako testua

35'	ERREZITALDIA	<p>Denok lurrean eseriko gara oholtzari (oholtza metaforikoa izan daiteke) begira. Irakasleak musika kutxa joko du lanen artean, eta beraiek erabakiko dute nor hasiko den eta nork jarraitu. Alegia, musika martxan dagoen bitartean nahi duen ikaslea oholtzara hurbilduko da bere lana aurkeztera, amaitzean irakasleak musika kutxa joko du eta bitartean beste kide bat hurbilduko da. Txalo eskuak mugituz egingo dugu, zeinu hizkuntzan bezala, aurkeztu duenari bere lana partekatzearen eskerrak emateko baina zaratak momentuaren berezitasuna izorra ez dezan.</p>	<p>- Azpiegitura egokia (oholtza, gela zabal bat apainduta...)</p> <p>- Musika kutxa</p>
10'	BALORAZIOA	<p>Talde handian jarri eta balorazioa. Nahi duenak berea irakurtzeko aukera izango du.</p>	<p>- Idazteko materiala</p>

5.5 Ebaluazioa

Saio hauen ebaluazioa bi eratan egingo da. Alde batetik, saioz saioa ahozko ebaluazioa (saio bakoitzaren amaieran hamar minutu eskainiko zaizkio auto eta koebaluazio honi), eta bestetik prozesu amaieran irakasleak beteko duen errubrika. Saio bakoitzeko baloraziorako *Euskal girotze barnetegiak (Oinarri, jolas eta teknika hezitzaileak)* (2019) liburuan proposatutako jarduera batzuk erabilgarriak izan daitezke:

- Aulki gainera: Denok biribilean eserita gaudela, irakasleak hainbat galdera egingo ditu: “Nori gustatu zaio jarduera hau? Nork hitz egin du asko? Nork agindu du asko? Nork ez du ulertu?...” Galderaren erantzuna baiezkoa bada aulki gainera igoko dira, bestela, eserita jarraituko dute. Nahi izanez gero irakasleak erantzunaren zergatiak galde ditzake.
- Domino erraldoia: Partaideen artean domino jolaseko piezak banatuko dira. irakasleak galdera bat egingo du eta 6:6 daukana hasiko da erantzuten. Irakasleak galderak egiten jarraituko du, baina erantzuteko, jolaseko hurrengo pieza eduki beharko du ikasleak.
- Eraikuntzak: Taldekide bakoitzak eraikuntza pieza bat izango du, eta irakasleak galdera bat egitean, erantzun nahi duenak bere pieza lurrean jarri ahalko du.
- Termometroa: Irakasleak lurrean zenbaki batzuk jarriko ditu termometro bat irudikatuz. Irakasleak galdera bat egingo du eta partaide bakoitzak termometroaren zenbaki batean kokatzeko aukera izango du. Bukaeran, nahi izanez gero, bakoitzari bere kokaleluaren inguruan galde dakioke.

Irakasleak bukaeran beteko duen errubrikak jardueren helburuak bete diren erakutsiko du, hortaz, helburuen araberako irizpideak agertuko dira. Ikasleek burututako literatura tailerrak ebaluatzeko errubrika⁸ proposamen bat izan daiteke ondoren azaltzen dena, betiere irakasleak malgutasuna izanik era ezberdinetara ebaluatzeko eta ikasgelaren beharretara egokitzeko. Izan ere, irakaslearen azken lana ikasleen gaitasunen araberako ebaluazioa egitea da, testuaren helburuari eta testua burutzeko hasierako egoerari erreparatuz (Delmiro, 1994).

Honez gain, proposamenaren ebaluazio zuzen bat egin ahal izateko, ikasleengan izan duen eragina aztertuz, inportantea izan daiteke ikasleei ere euren sententzioen berri galdetzea, eta askatasunez erantzuteko aukera egoki bat hobekuntza proposamenen kutxa izan daiteke.

⁸ ikus. [Ebaluazio errubrika](#)

Bakoitzari paper zati bana banatuko zaie, eta anonimoki zer gustatu zaien eta zer ez idatzi eta kutxara sartuko dute. Era anonimoan egin nahi ez bada, interesgarria izan daiteke post-iten dinamika. Arbelean galdera ezberdinak proposatuko dira: Nola sentitu zara?, zer gustatu zaizu? zertan ez zara eroso sentitu? etab. eta galdera bakoitzaren azpian ikasleek post-it bana itsatsiko dute, nahi izanez gero ozen kontatuz erantzunak.

6. PROPOSAMENAREN BALORAZIOA ETA KONTUAN HARTZEKO GAKOAK

Aurretik aipatu bezala, Practicum IIIrako diseinatu nuen hasierako proposamen bat, eta orduan lau saio eraman nituen aurrera. Hortaz, Ikastolan bizi izandako esperientziari segida eman nion, GrALaren irakasgaiak hasitako bidean murgiltzeko aukera ematen baitzidan. Hartara, lanaren atal teoriko-metodologikoan sakontzeaz gainera, praktiketan ateratako ondorio nagusiekin hobekuntza proposamenak ageri dira azken diseinu honetan.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da aurretiko prestakuntzak daukan garrantzia azpimarratzea, bai irakaslearen formakuntzak eta baita proposamenaren prestaketak ere. Irakasleari dagokionez, beharrezkoa da landuko den edukia bereganatu eta beharrezkoa balitz norberak entseiuak egitea gai ezberdinei dagokienean, batez ere irakurketari dagokienean. Hasierako irakurketak, lehendik esan gisara, garrantzia handia du, baina horretarako, inportantea da irakasleak konfiantza izatea errezitaldi hauetan eta testuak landuta edukitzea, aurkezpena egokia izan dadin. Horregatik, beharrezkoa da testuen aukeraketa egokia egitea hasieratik eta hauek aurrez praktikatzea.

Honek lotura zuzena du bigarren puntuarekin: esku-hartzearen prestakuntza. Momentuan inprobisatzeko tartea badago ere, ahalik eta itxien eraman behar dira plangintzak, beharko den material guztia baloratuz eta irakurketak egoki hautatuz (horrek ez du esan nahi inprobisatu beharko balitz malgutasunik eduki behar ez denik), prestaketa zuzenagoa izango baita eta horrek ondorengo emaitzetan eragin zuzena izango baitu. Bestela, posible da momentuan hautatu beharrak segurtasun faltak sortzea eta horren ondorioz egokia izan zitekeen errezitaldi bat ez gauzatzea.

Taldekatzeei dagokienean ere, hutsuneak ikusi nituen praktikaldian esku-hartzean guztiz definituta ez edukitzearen erruz. Izan ere, kontua hausnarrean ibilita kontuatu naiz garrantzitsua dela taldeak era ezberdinetan egitea, eta irakasleak hartzea horretarako ardura, ez daitezen beti lagunak lagunekin ipini. Horrela, ideia ezberdinak elkartuz

aberastasun handiagoa egongo da sorkuntzetan, gai ezberdinak jorratuko dira. Honek gainera, etorkizunean jende ezberdinaren iritziak entzun, errespetatu eta kontuan hartzen lagunduko du (Valenzuela, 2022). Hori era dinamiko zenbaitetan egin ahal izateko proposatu dira aurreko puntuan taldeak egiteko proposamen ezberdinak.

Era berean, taldekako ebaluazioaren prestakuntzak ere garrantzia handia du, modu ezberdinak probatu behar dira ikasgela bakoitzera egokitzen direnak hautatu ahal izateko; horrela, ikasle guztien parte hartzea bermatuko baita. Horrela, ikasleek idazteko modu ezberdinen inguruan hausnartzean, mundua ulertzeko eraren inguruan ere hausnartzen dute, errealitatearekin dugun harremanarekiko ere (bir)pentsatuz. (García, 1993, Delmirok aipatua, 1994).

Azkenik, denboraren kudeaketarekin ere malgutasunez eta inprobisatzeko gaitasunez jokatzeko jakin behar da. Ikasle bakoitzak -eta baita ikasgela bakoitzak ere- bere gaitasun eta erritmoak ditu, hortaz, garrantzitsua da bakoitzera egokitzeko prestutasuna izatea. Horretarako, kontuan hartu beharrekoa da denbora utzi behar dela bukaerako ebaluaziorako ere, bestela, azken egitekoa izanik, probabilitate handia dago ez egiteko, eta aurrez argi geratu da zeinen garrantzitsua den saioz saioko ebaluazioa ere.

7. GrALAREN BALORAZIO PERTSONALA

Gradu Amaierako Lanaren hasierara joz, gogoan dut izugarri kostatu zitzaidala zein gai hautatu nahi nuen erabakitzea, interes faltagatik baino, gai asko egiten zitzaizkidalako erakargarri. Hori dela eta, hasieran asko kostatu zitzaidan lanarekin abiatzea, ideia gehiegi baintuen lan bakarrerako, eta GrALeko zuzendariak esaten zidan bezala, kimatze lanari ekin behar nion. Hori izan da prozesuan zehar etengabe egin behar izan dudana, eta pertsonalki, gehien kostatu zaidana.

Praktiketan hasterakoan ideiak argitzen hasi nintzen; Practicum IIIko esku-hartzea prestatu heinean, GrALeko marko teorikoan jorratzeko interesgarriak izan zitezkeen gaiak deskubritzen joan nintzen, eta horrekin batera, lanarekiko motibazioa nabarmenki hazi zitzaidan. Marko teorikoak eta esku-hartzeak elkar elikatzen dutenez, aldi berean joan naiz biak lantzen, autore ezberdinen proposamenak moldatu, praktikan jarri eta hobekuntza proposamenak gauzatuz etengabe.

Pertsonalki oso baliagarria iruditu zait lan hau etorkizunean osorik aplikatzea gustatuko litzaidakeen proposamen hau gauzatzeko, eta bururatu dakizkidakeen proposamen ezberdinak nola egin beharko liratekeen ikasteko. Uste baino lan eta konfiantza gehiago eskatzen du esku-hartze didaktiko oso eta eraginkor bat osatzeak, baina oso indargarria da aurrera eramaterakoan zerk funtzionatzen duen ikustea; are gehiago erreferentzia zientifikoek lanaren baliagarritasuna berresten dutenean.

Bukatzeko, etorkizuneko –zein orainaldiko– irakasle guztiei sormenaren aldeko aldarrietatik haratago, ikasgelan proposamen berriak –zein ez horren berriak baina aplikatzen ez direnak– probatzera animatu nahiko nituzke. Idazketa eta ahozkotasanari merezi duten garrantzia eman behar zaie, eta horrek, aurretik azaldu bezala, esparru ezberdinetan edukiko ditu ondorio positiboak.

Eman diezaiegun hitzei arnasa, bizitzari jolasa, jolasei bizitza, arnasari hitza. Eman diezaiegun hitzari jolasa, bizitzak har dezan arnasa.

8. ERREFERENTZIAK

- Allende, D. (2022). *Talleres de lectura y escritura* [Publikatu gabeko eskuizkribua]. Universidad Bernardo O'Higgins, Txile.
- Añorga, P. (2022). *Din Dilin Dan*. Denonartean.
- Astiz, I. (2019). *Joemak eta polasak*. Elkar.
- Bertozale Elkarte. (d.g). *Bertso Ikasgela*. <https://bertsoikasgela.eus/>
- Bertozale Elkarte. (d.g). *Bertsolaritza ikastetxean*. <https://www.bertozale.eus/eu/bertsolaritza-ikastetxean>
- Bertozale Elkarte. (d.g). *Bertso Ikasgela: Errima kartak*. <https://bertsoikasgela.eus/baliabideak/903/>
- Bueno Saez de Albeniz et al. (2023, urtarrilak 26). Curriculum digitala eta berrikuntza pedagogikoa: prozedurak berraztertu. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1879/018/001/2023-01-26/curriculum-digitala-eta-berrikuntza-pedagogikoa-prozedurak-berraztertu.htm>
- Castillo, J.A. (2008). El desarrollo de la expresión oral a través del taller como estrategia didáctica globalizadora. *Sapiens*, 9(1), 179-203.
- Chacon, P. (2008). El Juego Didáctico como estrategia de enseñanza y aprendizaje ¿Cómo crearlo en el aula? *Nueva Aula Abierta*, 16. <https://d1wgtxts1xzle7.cloudfront.net/37885767/juego-libre.pdf>
- Córdova, M.J. (2017). *Talleres de dramatización con enfoque colaborativo mejora la expresión oral en los niños y niñas de 4 años*. Universidad de los Ángeles de Chimbote, Perú. [https://repositorio.uladech.edu.pe/bitstream/handle/20.500.13032/15000/DRAMATIZACION%20DE%20TITERES APRENDIZAJE%20COLABORATIVO CORDOVA ALB AN MARIA JUANA.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://repositorio.uladech.edu.pe/bitstream/handle/20.500.13032/15000/DRAMATIZACION%20DE%20TITERES%20APRENDIZAJE%20COLABORATIVO%20CORDOVA%20ALB%20AN%20MARIA%20JUANA.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Curriculum berriaren zirriborroa [argitaratu gabea]. (d.g). *Oinarrizko Hezkuntzaren curricula zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*.
- Delmiro, B. (2002). *La escritura creativa en las aulas: en torno a los talleres literarios*. Biblioteca de Textos.
- Delmiro, B. (1994). Los talleres literarios como alternativa didáctica. *SIGNOS*, 11, 30-45. <http://www.xtec.cat/~ilopez15/materials/expresioescrita/talleresliterarios.pdf>
- Dosuna, S. (2020). *Poesia gozatu eta mundua dastatu: Hotsak jolas bilakatzeko 5 urteko gelarako proposamena* [Gradu amaierako lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/51036/GrAL_Dosuna.pdf?sequence=1

- Egaña, I. (2022). *Hezkuntza liburuak zapatetan* [audio artxiboa]. Galtzagorri Elkarte. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a/hezkuntza-liburuak-zapatetan>
- Errepertorio literarioa, aho korapiloak. (d.g). <https://errepertorioliterarioalai.wordpress.com/aho-korapiloak/>
- Etzaniz, X. (1986). *Haur Folklorearen bilduma*. Pamiela.
- Etzaniz, X. (d.g.). *Haur eta gazte literatura kontzeptuaren definizio baten bila* [Publikatu gabeko eskuizkribua]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Etzaniz, X (2005). Gure arteko haur eta gazte literatura. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, 33, 89-101. <https://ojs.ehu.eus/index.php/Tantak/article/view/3234/4158>
- Etzaniz, X. (2022). *Gaur egungo haur eta gazte literatura: Haur eta gazte literaturaren kronologia* [Publikatu gabeko eskuizkribua]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Euskadi Literatura Sariak. (2022, urriak 21). *Wikipedia, Entziklopedia askea*. Kontsulta data: 2023, maiatzak 3. https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskadi_Literatura_Sariak
- Eusko Jaurlaritz. (2017, irailak 4). *Hezkuntza Sailak 2017ko Urruzunotarrak Gehituz literatura ekimenaren sariak banatu ditu*. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2017/uruzunotarrak-gehituz-literatura-ekimenaren-sari-banaketa-ekitaldia/>
- Eusko Jaurlaritz. (2018, irailak 7). *Hezkuntza Sailak harrera egin die 2018ko Urruzunotarrako Gehituz literatura ekimeneko sarituei*. <https://www.euskadi.eus/albistea/2018/hezkuntza-sailak-harrera-egin-die-2018kko-uruzunotarrako-gehituz-literatura-ekimeneneko-sarituei/web01-s2hhome/eu/>
- Galtzagorri elkarte (d.g.). <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/elkartea>
- Gil, C. (2003). *¡A jugar con los poemas!*. Editorial CCS. https://mercaba.org/ORARHOY/CATECISMO/gil_carmen_-_a_jugar_con_los_poemas.pdf
- Guillan, O. (2016). *Mr. Señora*. Txalaparta.
- Iñigo Astiz. (2023, martxoak 7). *Wikipedia, Entziklopedia askea*. Kontsulta data: 2023, apirilak 17. https://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%B1igo_Astiz
- Iriondo, A et al. (2017). *Plastikozko loreak*. Txakur gorria.
- Izquierdo, B et al. (2019). Actitudes y sentimiento de competencia hacia la lectura y la escritura del alumnado de 1º y 2º de Educación Primaria. *Revista Complutense de Educación*, 31(3), 275-284. <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/200372/Izquierdo.pdf?sequence=1>
- Lastra, M.J. (1997). Aproximación lúdica a la poesía infantil: una propuesta educativa de Juan Cervera. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 92.

https://www.cervantesvirtual.com/s3/BVMC_OBRAS/ffd/021/c68/2b1/11d/fac/c70/021/85c/e60/64/mimes/ffd021c6-82b1-11df-acc7-002185ce6064_17.html

- Leire Bilbao. (2023, apirilak 14). *Wikipedia, Entziklopedia askea*. Kontsulta data: 2023, apirilak 17. https://eu.wikipedia.org/wiki/Leire_Bilbao#cite_note-4
- Lertxundi, A. (2011). *Maria Goikoak, batbirulau!*. Alberdania-Erein-Igela.
- Lopez Gaseni, M eta Etxaniz, X. (d.g.) *Euskal Haur Poesia XXI.mendean* [Publikatu gabeko eskuizkribua]. Euskal Herriko Unibertsitatea. https://egela.ehu.eus/pluginfile.php/6963105/mod_resource/content/1/euskal%20haur%20poesia%20XXI.%20mendean.pdf
- Martinez, L. (2018). Receta de André Breton para hacer escritura automática. *LinkedIn*. <https://es.linkedin.com/pulse/receta-de-andr%C3%A9-breton-para-hacer-escritura-leo-nardo-mart%C3%ADnez-arias>
- Mendieta, M.J. (2004). *Aitorrek bi ama ditu*. Erein.
- Milian, M. (1995). Una exposición de poesía: poemas para leer y comprender, para decir, para mirar, para jugar. *Aula de Innovación Educativa aldizkaria*, 39.
- Moreno, V. (1998). *Va de poesía*. Pamiela.
- Muguruza, J. (d.g). "Txitxarroa eta atuna" umeentzako disko berria [Blog bateko mezua]. *Jabier Muguruza*. <http://www.jabiermuguruza.net/>
- Olaso, X. (2001). *Auskalo! (Igarkizun eta aho-korapiloak)*. Pamiela.
- Olaso, X. (2012). *Tximeletrak*. Pamiela.
- Pelegrin, A. (1994, maiatza). *Cada cual atiende a su juego*. Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. https://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/cada-cual-atiende-su-juego-de-tradicion-oral-y-literatura--0/html/01bf60e6-82b2-11df-acc7-002185ce6064_12.html#l_0_
- Pelegrín, A. (2003). Poesía eta poetika haurrentzat: tradizioa eta modernitatea. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*. <https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/083.pdf>
- Perriconi, G. (1994). Una alternativa de aprendizaje: los talleres literarios. http://www.lecturayvida.fahce.unlp.edu.ar/numeros/a8n1/08_01_Perriconi.pdf
- Rueda, E. (2023). Poetak Maiatzean XI. Nazioarteko Poesia Jaialdiaren egitaraua 2023 - Euskara [Blog bateko mezua]. *Poetak Maiatzean*. <https://poetasenmayo.com/eu/?view=category&layout=blog>
- Richardson, J eta Parnell, P. (2016). *Tango iritsita, hiru dira*. Pamiela-Kalandraka.
- Rodari, G. (1977). *Gramática de la fantasía*. Ediciones Juventud.
- Rodari, G. (1983). *Telefonozko ipuinak*. Itzul.
- Roman, P. (2022, urtarrilak 7). 4 ejercicios de escritura automática [mezua blog batean]. *LinkedIn*.

<https://es.linkedin.com/pulse/4-ejercicios-de-escritura-autom%C3%A1tica-letrasypoesia>

Pupuan Trapua. (2019, abenduak 19). *Wikipedia, Entziklopedia askea*. Kontsulta data: 2023, apirilak 17. https://eu.wikipedia.org/wiki/Pupuan_trapua

Telleria, A. et al. (2019). *Euskal giroitze barnetegiak (Oinarri, jolas eta teknika hezitzaileak)*. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saila.

Triana Castro, Y.M. (2018). De la asignatura al taller de literatura como estrategia didáctica. Una reflexión desde la práctica docente. *Enunciación*, 23(2), 225-236.


Valenzuela, D. (2022). *El docente pospandemia. Nuevos retos, viejas necesidades*. Corporación Universitaria Lasallista. https://www.researchgate.net/profile/Carles-Monereo/publication/366228682_EL_DOCENTE_POSPANDEMIA/links/639d7938024dc52c8a278cd0/EL-DOCENTE-POSPANDEMIA.pdf#page=62

Vitoria-Gasteizko Udala. (2020, abenduak 9). Gauekoak - Hizki Laburren lehiaketa. Resultados del certamen [Mezua blog batean]. *Blog VGaztea*. <https://blogs.vitoria-gasteiz.org/vgaztea/2020/12/09/gauekoak-hizki-laburren-lehiaketa-resultados-del-certamen/>


Xabier Olaso. (2022, maiatzak 27). *Wikipedia, Entziklopedia askea*. Kontsulta data: 2023, apirilak 17. https://es.wikipedia.org/wiki/Xabier_Olaso

ERANSKINAK


1.Eranskina: Eroglifikoak



Zer daroma eskolara?



Zer eman dio?



Gaizki egin ez gero, zer egin behar da?

2.Eranskina: Pasa hitzak

Pasa hitzetako definizioak, Bertso Ikasgelatik (d.g.) eskuratuta:

PASA HITZA 1

- A - Xomorro hanka luzea / sarea du arma (armiarma)
- B - Tartalok bakarra du / ez al da egia (begia)
- D - Partxisean zortea / banatzera doa(dadoa)
- E - Pipak ematen ditu / hori kolorea (eguzkilorea)
- F - Larunbat gauerako / plan hoberik ezta (festa)
- G - Pinotxori luzatu / ohi zion sudurra (gezurra)
- H - Perurenak lepoan / sarri du jarria (harria)
- I - Zeruko farola da / gaueko argia (ilargia)
- J - Haria pasa... kontuz / ez zulatu hatza (jostorratza)
- K - Eserleku bat, ura / eta zuloduna (komuna)
- L - Gazta bat lau puska egin / ta bakoitza dena (laurdena)
- M - Surfistentzat bere hortzak / dira arazoa (marrazoa)
- N - Munduko ur jauzirik / handiena, hara! (Niagara)
- O - Ogia sartu ohi du / labean, jakina! (okina)
- P - Eguzkitzek aurkezten / duen kirol mota (pelota)
- R - Piratak edaten du / botilatik ona (Rona)
- S - Gaixotzean kopeta / hotzaren dardarra (sukarra)
- T - Txistuka pasatzen da / tunelean barrena (trena)
- U - Hondartzara joateko / garaia heldu da (uda)
- Z - Oilo salda irakin / fideoa bota (zopa)

PASA HITZA 2

- A - Taldeko animalia / maite du mendia (ardia)
- B - Lanparari jartzeko / led izan dadila (bonbila)
- D - Urre, zilar zein brontze / beti atsegina (domina)
- E - Arturorena harritik / gogoz aterata (ezpata)
- F - Pilotariak bertan / nolako sasoia (frontoia)
- G - Cupidok botaz gero / pizten da bizia (gezia)
- H - Urtean hamabitan / hasten den tartea (hilabetea)
- I - Ugaztuna: igeri / gu baino hobea (izurdea)
- J - Kamiseta gaineko / ta mauka luzea (jertsea)
- K - Portuko txoria da / lapurtzen jaioa (kaioa)

- L - Dutzatzen ispilua / estaltzen diguna (lurruna)
- M - Euskal Herrian asko / Popeye bezela (marinela)
- N - Doraemonen ondoan / sarri ikusita (Nobita)
- O - Txerriki zoragarri / odol eta heste (odoloste)
- P - Gorputza zulatzea / gaur moda egina (piercinga)
- R - Autopistan astiro / ibili beharra (radarra)
- S - Kantzontziloak bistan / ibiltzen da hegan (Superman)
- T - Arrautzak irabiatuz / jaki borobila (tortila)
- U - Eguzkiari buelta / osoa ematea (urtea)
- Z - Hau lortzeko behar da / laranja odol-hustu (zuku)

Pasa hitzerako sortutako baliabide materiala:



3. Eranskina: Esku-hartzetik jasotako ikasleen lanak

3.1. Kontakizun kolektiboak

1. Taldea

Egun batean zegoen muill bat Pablo izeneko pablo 19 urte zituen
hile marroin altu... ere norba bat zeukan maria izeneko
Pablo entzuten zela zen eta harkak etira bere ikasleak Paule
Gorane Maialen Aldea...

Behin, Paule esan zion Pabloi malabarista izan nahi zuela
eta Pablo barre egin zen. Bere es zela zera zen Gorane
poterak zirela eta orduan poliki-poliki igela bihurtu zen.

Pablo igelari es zitezaion batere gustatu Goranek igela bihurtzea, orduan
saltara joan zen Gorane ongi gana bronka botatzen.

Baina Gorane aritu eta ostirada ber eman dio Pablo igela
joan da aurretik egaztin bat betala.

Eta Gorane bere egaztin pribatu baina
bere egaztinekin zego zuden pertsona batzuk
Solaten... agur kontuare.

Baten behin, Ane izeneko neska bat, Parisen bizi zena. Ane, ile
gorria du, eta moter janteita doa. Bere, oso alaba eta osarta zen.
Bere txakur grisarekin bizi zen. Bere ete oso alaba zen, eta Mia izeneko zera.

Joan zien Paris bat ematera ~~hazera~~ eta
Ane kotatzen pilotari Miarri, Mia joan zen pilotaren
bia orduan Ane ez zekien zen zegoen Mia.

Mia orduan bere gaitzetan kaka eta eta aneri regla
bajatu zion, mia Komunean zegoen eta Ane bilatzen

Jasone konpresa batzuk eman zizkion. Miarri eta Miarri
kulero berriak. Eze desodorantea eta koloni eman zizkion.
Anean zen Komunean erabiltzeko zela.

Ane hosi ikustean asko haserretu zen Jasoarekin. Miarri esan zialako
oso gogoki usaintzen zuela. Orduan polizia gana bidali zuten, eta
kartzelara botatu zuten.

³ Bazen behin, neska bat Maria izeneko zena. ~~Leonen~~ Leonen bizi zean
bere arropa txikiarekin Sara, Maria modelan zen eta Sara Mariaren
izena zen. Egun batean Pablo Gonzalez ~~disenatzen~~ disenatzen zela zena bat
eraman behar zuela,

⁴ Mariari es zitezaion batere gustatu Pablo Gonzalezen soinuko,
eta hurrengo egunean zena desfilea. Maria es zekien zela egin eta
Pabloarekin asko haserretu zen.

⁵ Maria utsi egin zion pablori desiztearen aurreko egunean eta
Gonzalezekin joan zen ~~joan~~ rinken bakera musukatzen eta bakarrekin
Pabloarekin.

² Kondonik gabe egin zuten eta kontratu ziren.
ume bat euki zutela, pablo bereala zen.
gonzalez

³ Azkenean Maria Sarari kontratu egin eta abortatu zuen.
~~Pablo desinmituta emu bihurtu zen eta abestiale~~
egin zituen ~~baia~~ baia jama egin es berez
atletismoarekin jarraitu zuen.
eta

¹ Behin batean zegoen Maialen Paule eta Gorane garren
eta sandara joan gara arropa erostera eta strabi bat orora
joan ziren, Otauko gausak erori dituzte eta oso honichan
zuden.

² Anearen gustukoena naruto zen Gorarekin gustukoena taie yonk
Maialaren Pokemon eta Paulearen guztiak ziren, onichean
Paule zen

³ ~~Maialen~~ Maialen Goraneri Taie Yonk kontratatu zenerak apartu
zela, baina Paule eta Ane haserretu ziren. Orduan hasi
ziren libal sakaniko bat egiten naruto manifestatzen.

⁴ Askok salatu zuten, eta Naruto azkenean manifestatu zen. ~~Maialen~~ Maialen
eta Gorane kontraturatu ziren, eta bakarrean Naruto ~~hogan~~ hogan gite n
ilusi zuten.

~~Maialen~~ Maialen arto eta ~~Maialen~~ Maialen musukatzen ari da eta gorro
Naruto bakarra zegoela me bat eta Naruto es egin
logala ~~Maialen~~ Maialen!
Zen ~~Maialen~~ Maialen, las nabatzen eta Narutoni ere.
Narutoni semea akera eta sonidito arrearekin akera
hori 'a a a a a' eta ia esta.

2. Taldea

SASKIBALOIKO PARTIDOA

Bazen behin neska bat Ane deitzen zena. Anek 13 urte zituen eta herri txiki batean bizi zen. Nahiko altua zen, kaskarria eta ile luze marroia zuen. Eskuzabala eta bihotz onekoa ere zen.

Ane saskibaloia egiten zuen eta hurrengo egunean saskibaloia txapelketa izango zuen. Baina bat-batean ekipa 7 pertsona koronabirusa hartu zuten. Txapelketa oso garrantzitsua zen baina ez zuten jokatuarik.

Anek, momentu horretan ez zekien zer egin, soilik 4 jokalariek zuten, bera, Anize, Uxe, eta Maite. Txapelketa hori, oso garrantzitsua zen, finalera klasifikatuzeko aukera zutelako.

Baina jokalariek lastu zituen eta partidua irabazi zuten.

Egun horretan, Anek poz-pozik bukatu zuen eguna.

Egun normal batean, bazegoen neska bat Aroa Arieciobeta izenera. Haren ametsa, betidanik izan da bertsolari famatua izatea, eta txapela lortzea.

Aroa bertso saio ~~garrantzitsua~~ batera apurtatu zen, baina, istripu bat izan zuen eta ~~egun bat lehenengo ospitalera joan izan zen, eta bere bertso kideak~~ ~~transmisi~~ zitu.

Bueno, hori bere kideek uste zuten, ez zekitelako Aroa ezin izan zela bertso lehiaketara joan ospitalera zegoelako.

Eta, horrela izan zen. Aroak ospitalera geratu behar izan zuen, ~~horregatik~~ ezin izango ~~an~~ bertso lehiaketara joan. Berari perra handia eman zion lehiaketara joateko ezin izatea.

Baina bazekien zer egin, Hurrengo egunean zen lehiaketa, eta Aroa oso urduri zegoen. Hurrengo egunean, haren ama etorri zen bila eta bertso lehiaketara eraman zuen. Aroa honka bat apurtua zuela bertso lehiaketa nabari zuen. ~~ET ZUEN ESPERO!~~

JARE ETA BERE FUTOOLA

Bazen behin, Jare izenera neska ~~altu~~ ^{eta} ~~garrantzitsua~~ bat bizi zen. Jare futbolaria zen baina gehien gustatzen zitzaiona musua zen, trontzia jotzen zuen.

Jareni gurasoek ez zioten baloratzen, neskek futbola jokatu ezin zutela esanez, baina Jarek kasurik ez. Patioan, beti jokatzen zuen futbolera kutsoko mutuekin, Neskek ez zutelako nahi.

Orduan bere ~~aita~~ ^{aita} eta ~~ama~~ ^{ama} konturatu zirenean ~~Clare~~ ^{Clare} futbolera jokatzen zegoela.

Bronka oso handia jota zioten eta hilabete bat zigortu zuten telebista ikusi gabe.

Jare ezin zuen jasan hilabete bat telebista ikusi gabe, egotea. Baina, bai, ~~ulestu~~ ^{ulestu} zen zigortu izana. Eta hala bazen edo ez bazen ~~zar~~ ^{zar} abaila kalabazan.

Anna-ren istoria

Egun batean, Anna izeneko neska bat, Donostian bizi zen. Anna ile gorria zuen, baita perkak eta begi berdeak.

Egun batean, Anna, bere lagun Eider eta Junera-kin klasera joateko gelditu zen, egunero bezela-Plaza batean gelditu ~~ziren~~, baina Annak, Eider eta June ikusi zituenean gogolatuta zen ez zuela inguruko proiektua agin, Eiderrek eta Junek eskuan zuten.

Ordan Annak hori gogoratu eta etxera ziotu bizian joan zen. Etxean zegoen proiektua egiten hasi zen. Inostalara oso berand heldu zen eta gazria esan zuen, esan zuela medikua zela ~~izan~~ ^{izan} zuten.

Irakasleak, momentu hartan ez zuen sinistu, baina, etxera esatea erabaki zuen. Berez, ~~beste~~ ^{bertsolaria} esateko joan zen. Gero, esateko zuten zerbait gertatu zela ez jakinda.

Orduan irakaslea bronka jota zion baina sinistu zioten.

3. Taldea

Bazen bein segeen bi amai bat deitzen Antzerio eta batean Paco Antzerio bidea en Vitoria y pako Bilbao Antzerio eskari bala egiten zen eta pako nabaren.

Paco moturoseko karrera batean anka Antonio berarengana joan zen eta lagundu zion baina oraindik anka apurtuta zeukan.

Pepe oso gaizki zeukan anka eta Antonio oso triste zeuden ezin zuelako bere laguna ikusi klusea zuelako.

Denbora bat pasatu ^{orduan} joan eta bere lagunak beste lagun bat zuten/orduan gutxiago zegeen ordain zozter egin nahi zen betatekin egoteko.

Bere denbora aske zen lagunekin jendea eta diputat hiru zuten eta lagun gehia beste ziren eta asu

Bazen bein, pepe deitutako mutiko bat zegeen. Santa Cruz de kandezen bizi zen, bakarrik bizi zen Murtereko eta bere lagun oherena Jose deitzen zen.

Peperi futbola usko gustatzen zitzaion eta Jose oso ona zen. Pepek esaten Zion pista bat vstea.

Ordun ~~eta~~ zuten zen eta pepek Alabasten zuten denbora osan. Pepek esaten zen Jose txarra zela eta bere onena zela. Jose? esate gustatzen beti gaitzen.

Bazen Jose beti pildzen zen jendea. baina Jose pasatzen ziren eta berriz \Rightarrow laguna izan zen baina bera ez zuten aldatzen.

Azkenean Jose aldatu zion eta egunero nuteia bote bat jaten zuten.

Bazen bein Pepe izeneko mutiko bat futbola usko gustatzen zuena, baina ez zuten inor berekin jolastu nahia jendek ezaten zuelako falta usko egiten zituela. Oso ona zen, Caken elipsoan jolasten zuten eta bere elipsoa gustatzen zuten ziren etniko eta oitrik gaitzen. Baina beti Alabasten zuten.

Eta esgaitzen jaten gero Anizabarru jantzen zuten bere onen il zen eta bera anka il zuzen zuten eta oso triste segeen.

atal hau (atazko aldean idatzita da)

Pepe karateas nekatu zen eta futbolaria jolasteami bukatu zen anizabarru arku zuten eta gero madrileru urtu zioten eta omuin murrizten jolasten duso.

Bazen bein Txiki bat oso maluzka Pake deitzen zena. Betek mahi zuten hiri osan jolasten betea. Ene zahar batean bizi zen Zorba betekin, oso lagun txiki ziren eta zorba Jose deitzen zena.

Bazen Pake il zen eta Antzerio oso triste jantzen zuten Bera berriz berri sara eta gisati gaitzen iltza eta orotekin berriz.

Gizaki biziaren guztiek hiltzen hasi zen baina orretarako Plan bat behar zuten elikoptero batean montatzea eta orrik hiltzea pentsatu zuten.

Elikopteroan klon bat egin zuten baina gaizki utera zen eta mostruo bat egin zuten ordutan elikopterotik bota zen.

Horia eslotatu eta zegoen jantzen gaitzen joan zen eta sara bat berriz eta telebista gaitzen gelditu zen berriz osan.

4. Taldea

ALAVÉS EN HISTORIA

Egun alai bat za alavesentzako
Championseko finalen zuden golatu
behar zuten Barcelonaen kontra.

Partidoa hasi zen 21:00etan eta Pepete nahi zuten inusi,
eta saldu zuten guzuz kitzurk jokatuko Blediana eta
crestero entrada gut. Nahi zuten arosi Batarri bitara sarttera.

Momentu horretan sartterak aru zituen España.
Marruekoson contra eta penaltien BASKETS
bat penaltia botaraz zurean Pepete mydudP boelra
bat egon zuten eta gero estadioan sari zireta.
BASKETS penaltian botatzen zegoen.

Eta penaltia sartuzuen escuadratik
gero denak zudra.

Baile Ca pibara le moain sai sana Baile capibot
le moain saizana eta BASKETS pazka bat
bota zuten.

BASKETSren fuskera intoxicatu auzer jende
gustari eta uolko esin du

ANANIN-REN historia

Buen bota zuden 3 antzara bere itxetan eta durre itxerak
ziren PE, PO, eta TE. Namin bizi ziren eta esnatzeileak
zireta. Akordio bat esin zuten jendekin eta baxu Joan ziren.

Daxoren aldean ziretenen Suge bat atera
zen eta esan zuten

Es Soy Ananin

Es Alasti esan zuten PE



Eta baile fachero bat egia nuen, gero esan
nuen

-ala, ala, ala ~~es~~ esan nuen

-eta jan Fry esan zuten

-tia Paola, Camilo dijo una grosseria. -esan

eta zuten, eta MS pol esan zuten

- Kimiro, Char, Comi na ~~es~~ esan zuten ~~na~~

eta gero Superman esan zuten

-Tatarara

• Gero Janhi esan zuten berriro

-tia Paola, Camilo dijo una grosseria

• Gero etorri zen Miquesito eta suplasteko
bat eman zion frantziar frantzia neskeren
jari zen ze eman dieke suplasteko bat eta
galdu zuelako Argentinaren kontra

ALAVÉS RACING GOLEADA

Egun batean Alavesa Solasten zuten
Racingen kontra Solasten zuten
mendiaroan. Partiduak hasi eta Alavesa gola
sartu zuten

Gero Joan nintzen komuera eta gailde
nuen Racingen gola orduan 1-2 jokatzen
zen partidoa, descanso eta gero Alaves
sartu zuten gol bat eta ni nekien goleatuko
zuela Alavesa Racingera.

Eta Alaves golak eta golak zuden zartzen
minutu 55 eta Racing gola sartu du Alaves?
Alaves nivela jeltzen ar ~~es~~ zen. Baxu memento utzen

offizioko argazki itzuli zituen eta bitartean etorri zen
miguel eta esan zuten ~~es~~ Alavesa sartu
zuen 69 gol ~~sartu~~ sartu zuten 69 minutuan.
Ordea 90 gol eta Alavesa Prabasi zuten
eta denak esan zuten
-Es puna, espana, para, aña

FREE-FIRE

Egun batean Free-Fire jolasten
negoan eta Heroico rangoa aru
ondoren mobiloren pantaila n sartu nuen
eta Free-Firen insanoatzen bizi nintzen.



Egun ahuletan egon nahi nungoa igotzen
baina momentu batean negoen jolasten
eta musikoraren pantaila beltzez gelditu
dei musikora aputu ~~ziren~~ ziren

momentu horretan hildu nahi zuten mundo dena baxu lagatzen
baxu duta musikoraren deitu nua tilin eta Etasch
niri laguntzera eta Joan ginen Mar niri.

Naminara Joan zuten Alavi esan zuten
Alavi esan zuten Espana, para, para, Alavi!!!
Eta gaitxo Alavi sen


Eta oso pozin negoen eta diara antes
para el free baika egin nuen

3.2 Taldeka eroglifikoak sortzen




ZER NAGO HUSTEN?

ERREGĒA




-HOR +0


HOR



A



* -12



3.3 Poemak hieroglifikatzen


1. Ilargiaren soinekoa

Zazpi jostunek ilargiari
soineko bat opari.

Ilargia baina,
aurrena ilbetea,
hurrena ilbehera,
orain ilberria,
gero ilgora.

Ezin soinekoa jantzi,
inondik inora.

- Xabier Olosa, *Tximeletrak* (2012).



2. Gabriel barraskiloa

Neure etxea defendatuko dut
kazkabarraren,
oinetakoan,
harrien,
denboraren
kontra.

Neure etxea defendatuko dut
bakardadearen,
googoetaren,
neure buruaren,
libertatearen alde.

- Leire Bilbao, *Piztipoemak* (2019).



3. Txerriaren buztaneko galderak

Non utzi ditu betaurrekoak eguzkiak?

Non ote du teleskopioa ilargiak?

Zenbat mundu daude ur tanta baten barruan?

Zenbat hotz dauka munduak?

Zenbat elur neguak?

Zenbat begi lehio batek?

Noiz egiten dute negar tipulek?

Nola hazten dira harriak?

Nork agintzen du noiz piztu farolak?

Zenbat kilometro daude oinetako parearen barruan?

Zenbat ordu erloju baten barruan?


Zenbat olatu ibai batean?

Zenbat euri aterkian?

Nola maita dezake buruak?

Nola pentsa dezake bihotzak?

- Leire Bilbao, *Piztipoemak* (2019).




4. Errima arrimatua II

Zomorroak argira
barraskiloak eurira
ahuntzak mendira
eta saguak...
saguak ilargira.

Letrak belarrira
begiak hiztegia
zalantzak harira
eta ez direnak...
ez direnak ere badira.

Txikiak handira
lehorrak bustira
negua udaberrira
eta mundua...
mundua behin eta berriz
jira eta bira.
Datozen eta doazen bezala
zomorroak argira.



- Leire Bilbao, *Piztipoemak* (2019).


5. Aurrez aurre

Aurrez aurre,
begiz begi,
zure begi-ninietan
ni.

Aurrez aurre,
buruz buru,
nire begi-ninietan
zu.

Buruz buru,
aurrez aurre,
nire begi-ninietan zer?

Aurrez aurre,
bekoz, beko,
zure begi-ninietan
lo.



- Xabier Olaso, *Tximeletrak* (2012).

4. Eranskina: Ebaluazio errubrika

Irakasleak erabil lezakeen ebaluazio errubrika posible bat:

Ikaslearen izena:	Data:			
1: Inoiz ere ez 2: Batzuetan 3: Gehienetan 4: Beti				
BALIO OROKORRAK	1	2	3	4
Proposatutako jardueretan gogotsu parte hartzen du.				
Aurrez zehaztutako arauak betetzen ditu.				
Errespetua erakusten du gainontzeko ikaskideekiko.				
TALDE LANA				
Talde lanean bere aportazioak egiten ditu				

Gainontzekoen iritzia eta aportazioak kontuan hartzen ditu				
Lanaren banaketa egokia egiteko gai da				
Lan banaketan egokitu zaion zatia egiteko konpromisoa hartu du				
KOMUNIKAZIO GAITASUNA				
Bere ideiak ahoz egokitasunez azaltzeko gai da				
Bere ideiak idatziz egokitasunez azaltzeko gai da				
Jendaurrean agertzeko gaitasuna hobetu du				
SORMENA				
Sorkuntzetan esperimintatzeko prestutasuna adierazten du				
Bere ideiak pertinenteak dira egiten ari garen ariketarekiko				
Idea originalak partekatzen ditu				
PENTSAMENDU KRITIKOA				
Gainontzekoen lanaren inguruko iritzia eman du, betiere errespetuz				
Gainontzekoek bere lanaren inguruan egindako iruzkinak onartu eta hauen inguruan hausnartu du				
Gainontzekoen iritzia kontuan hartuz hobekuntzak egin ditu bere lanean				
HOBETZEKO PROPOSAMENAK:				
.....				
.....				
.....				
.....				